

atarria

2019-03-08
1.015. zenbakia
107.6 fm
www.atarria.eus



**Bizitza
erdigunean**

2 mó graduatu

erreflexuen aurkako leiarrekin

99€

(bat eguzkitakoa izan daiteke)



Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira

R.P.S. 175/15 I.L.G.



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23

Tel.: 943 69 84 70

TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



ataria
argazki lehiaketa
ataria.eus

Inauterietako argazki lehiaketa



argazki selfie-ak
ataria.eus-era



nekatur

'Opari Bonu Orlegia'

Bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia:
logela eta gosariekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net • 943 32 70 90

Epaimahaiaren saria



ISASTEGI

Lau pertsonarentzako otordu bat
Isastegi sagardotegian
Aldaba txiki auzoa, Tolosa
• 943 65 29 64 • isastegi.com
ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria



Bi Mahala saski baserriko
produktuekin
Lehiaketan parte hartzen duten
Atarikideen artean zozkatzeko
Mahala baserria, Leaburu • 943 670 724
atarikideen saria

Gertatu egingo gara

Zaila da, gertatzea zer den definitzea. Gertatzea gertatzea da; segundo bakarreko kontua batzuetan, eta urte luzetako bidea, beste zenbaitetan. Gauzak gerta daitezke norbere buruan, kale ertzean edo munduan; gu geu gara gertaera bat. Baina, gertatzea, badira beste gauza asko ere: gauza gehienak ez direlako gertatzen, giza-talde oso batek gertatutako horren berri izaten duen arte.

Eta, ez kontatzea ez existitzearen pareko denez, horretan dihardugu egunero: besteen bizipenak albiste bilakatzen; besteren ahotsari hitzak jartzen. Tabernariak, gazteak edo ikasleak. Puntako zientzialariak, edo pentsiodunen borrokan lehen lerroan ari direnak. Prostituta ohiak, edo euskaraz ikasten ari diren migratzaileak.



'TOLosaldeko ATARIA'KO EMakumeak

Emakumeak. Eskualdeko emakumeen errealitateek ere idazten baitute, egunero, Tolosaldeko Ataria; eta, oraindik, asko dira idatzi gabe daudenak.

Horregatik, gaur, Atariaiko emakumeok ere bat egingo dugu gure hitzen ahotsa izan diren horiekin guztiekin; haiena ere badelako gure borroka. Gaur, ez dugu besteena kontatuko; gaur, gu izango gara albistearen zati. Guk ere eskatuko dugu zaintza zaintzea eta, oihukatuko dugu, ez dugula zenbaki huts izan nahi; kontagarri eta kontalari izan nahi dugula. Martxoaren 8aren ondoren ere kontatu nahi baitugu, greba egitea bera pribilegio hutsa dela emakume askorentzat. Eta, hori hala izanik ere, kontatu nahi genuke, 2019ko martxoaren 8an, mundua gertatzea izan zela mundua eraldatzeko moto-

rrik onena. Gaur, gertatu egingo gara.

Gaur, ez dugu besteena kontatuko; gaur, gu izango gara albistearen zati. Guk ere eskatuko dugu zaintza zaintzea eta, oihukatuko dugu, ez dugula zenbaki huts izan nahi; kontagarri eta kontalari izan nahi dugula.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeca Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEAK:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLosaldeko KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLosaldeko ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Ibai Luque



Ehunka emakumek, aurreikuspen guztiak gaindituz, Tolosan azken urteotako manifestaziorik jendetsuena egin zuten, nahikoa dela esanez. MIKEL IRAOLA

04

ZAINZA DENEN LANA DELA IKUSTARAZTEKO

Gaurko eguna ez da beste edozein egunen parekoa. Gaur, Emakumeen Nazioarteko Eguna da eta, bizitzak erdigunera eramanez, zaintzen gatazka azaleratzea da greba feministaren helburu nagusia.

Irati Saizar – Eneritz Maiz

Lan guztiak utzi eta kaleak hartzeko eguna, gaurkoa, emakumeena. Greba feminista deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak, Emakumeen Nazioarteko Eguna honetarako. Emakume guztiei dei egin diete, utz ditzatela mota guztietako lanak, soldatapekoak zein doakoak. Izan ere, greba feminista bizitzako esparru guztietan kokatzen dela azaldu dute: «Sexualitatean, kontsumo erduan, fami-

lia eraikitzeko moduan, jakintzak ekoizteko eran, arrazakeriaren aurrean, edertasun ereduari eta zapalkuntza guztien aurrean».

Grebara emakumeak deitu dituzte, baina emakume hitzak, oro har, heteropatriarkatuak zapaltzen dituen subjektu guztiak hartzen ditu barne, sistema berak sortzen eta inposatzen baitu gizon-emakume binomioa.

«Emakumeen bizitzak erdigunean» kokatzea da nahia: «Hala, gizartearen egituraketa osoari eragingo dio eta, emakumeek planto egiten badute,

dena geldituko da». Azaleko aldaketak baino, aldaketa sakonagoek iritsi behar dutela diote. «Emakumeen bizitzak bizigarri izan daitezen, ulertu behar da inguruan sumatzen diren injustiziak elkarrekin loturik daudela». Bat eginez, ordea, bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa eskatu dute.

Egunerokoa borroka eremu den aldetik, bost ardatzetan antolatu dute greba: pentsionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumoko greba izango da. Eta planto, zeri? Kapitalismoari, patriarkatuari, heteroaruari, kolonialismoari eta kapazitismoari, besteak beste.

Aukera ezberdinak dituzte emakumeek, grebarekin bat egiteko. Izan daiteke lantoki eta ikasgeletan greba eginez, edota herri eta hirietako mobilizazioetara joanez, edo antolatzen ari-tuz. Zaintzeari utz diezaiokete, amantala balkoian zintzilikatuz, ala besoko morea eta txapa jar ditzakete.

Baina gizonen ere badute egiteko-rik. Greba babestu nahi duenak, utz dezala soldatapeko lana norberaren eginkizunetarako egunak erabiliz eta, negozio propioa duenak, itxi ditzala ateak. Haien lehentasuna, zaintza lanez arduratzea izango da, eta mobilizazioetan ez parte hartzea.

Horrez gain, kontsumo greba ere

izango da; ez kontsumitzera deitu dute. Horretarako, komertzioak ixtea, eta irekita dauden horietan ez kontsumitzea izango da helburua, emakume zein gizonentzat.

Zaintza eta etxeko lanak

Ordainduak izan edo ez, lana dira. Ongizatea eta aberastasuna sortzen duten, eta bizitza aurrera ateratzeko baliatzen diren jardura horiek guztiak. «Gure gizartean diru truke egiten dena baino ez da lan produktiboa. Emakumeek doan egiten dituzten lanak ezkutatatu egiten dira, eta balioa kentzen zaie; erreproduktzioarekin, maitasunarekin eta familiarekin lotzen dira».

Etxeko lanak eta zaintza lanak produktiboak eta politikoak direla dio Euskal Herriko mugimendu feministak: «Ezinbestekoak dira gizarteari eusteko, bizitza sostengatzeko eta kapitala produzitzeko. Emakumeon esplotazioari esker, lan horiek dohainik ateratzen zaizkio sistemari». Eta nabarmendu dute, «Euskal Herrian dugun zaintza eredia emakumeon, eta bereziki emakume immigranteon esplotazioan oinarritzen da».

«Zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatzen ez badira, hau da, gizonak eta egitura publikoek ardura zuzenak hartzen ez badituzte, emakumeen bizkar geratuko dira lan horiek», kritikatu dute, eta «lan baldintza txarretan eta kasu okerrenetan, esklabutza egoeran aurrera eramanez».

Oraindik, lan banaketa sexuala gizarteko eremu guztietan gertatzen da, eta botere erlazioaren bitartez eraikitzen da. Lan feminizatuek, hau da, batez ere emakumeek egiten dituzten lanek, %80an edo gehiagoan, eskubide,

soldata eta errekonozimendu baxuagoak dituzte.

Zaintza eskubide bat dela aldarrikatzen dute, eta ekonomia feministaren ekarpenei tiraka, posible dela zaintza beste modu batean antolatzea: «Gizarte heteropatriarkaletan, besteak zaintzea betebeharrak bat da emakumeontzat, besteen beharrak aseztatuak izateko, eta menpekotasunean eta besteen desirak betetzeko sozializatze

**Emakumeen eta helduen
zaintzarako eszedentziak
hartzen dituztenen artean,
%91,5 emakumeak dira**

modu bat da». Baina ozen aldarrikatu nahi dute: «Emakumeok eskubidea badugu zaintzeari uzteko, gure beharrak lehenesteko eta besteen desirak ez betetzeko».

Prekarietatea arlo guztietan

Hego Euskal Herrian lan kontratu partzialetan ari diren %76,3 emakumeak dira, hau da, enplegua duten emakumeen %23,8a. Emakumeen %27,6 aldi baterako kontratuarekin ari dira lanean, eta kontraturik gabe lanean ari direnen artean, %73,8 emakumeak dira. Langabetuen erdia baino gehiago emakumeak dira, hau da, %57,2. Soldadari begiratuta ere, emakumeek gizonak baino 7.680 euro gutxiago kobratzen dute, urtean batezbeste, %25,2 gutxiago. Gazteen kasuan, berriz, 25 eta 34 urte arteko emakumeen soldatak, batezbeste, gizonezkoenak baino %24 txikiagoak dira. Neska gazte askok, kontraturik gabe egiten du lan tabernetan, klase partikularretan, dendetan edota zaintza lanetan.

Landa eremuan, lehen sektorearen esparruan, emakumeen %19a baino ez dira ari lanean. «Baserrietan lan egiten dugu, baina, askotan, gizarte segurantzarik gabe. Babesgabetasun handia eragiten du, eta ez dago ordutegi finikorik. Zaila izaten da zehaztea non hasten den enplegua eta non zaintza lana», azpimarratu dute.

Prestazioak kaskarragoak dira, errenta maila txikiagoak eta pobrezia egoera arrisku handiago dute emakumeek. Pentsiodunen kasuan ere, batezbeste, %37,38 baxuagoa da pensioa.

Eta krisi ekonomikoa, sistemak, mozkinak ateratzeko baliatu du, zaintzaren negozioa bultzatuz: «Azpikontrentzen bitartez, diru publiko hornitutako enpresa gutxi batzuek milioi bat euro baino gehiagoko irabaziak lortu dituzte urtebetean», salatu dute. Eta, gaineratu: «Langileen %90a baino gehiago emakumeak gara, eta kudeatzaile gehienak, aldiz, gizon zuriak».

Etxeko langileen kasuan, 37.243 langile daude Hego Euskal Herrian Gizarte Segurantzaren alta emanda, eta horietatik %37,79, immigranteak dira.

Eszedentzia, emakumeena

Emakumeak soldatapeko lanak izatera pasatu dira, eta soldatapeko lana duten emakumeen %75,2 dira zaintza lanez arduratzen direnak. Hego Euskal Herrian, umeen eta helduen zaintzarako eszedentziak hartzen dituztenen artean, %91,5a emakumeak dira.

Beraz, emakumeek, «lanaldi bikoitza» egiten dute. Eta denborari begirata, egunean, ordubete gehiago sartzen du. Zaintzaren bueltako lau ikuspegi bildu ditu TOLOSALDEKO ATARIAK.

Clara Campoamor

ERABAKITZEN DUTENA dudana IZANGO NAIZ

Agenda
Euskal
Herria
Country

30

5
GINTO
HERRI-ERAKUNDA

MARTXOAK 8
Emakumeen Nazioarteko Eguna

EMAKUNDE
EMAKUMEEN KONTAKO ERAKUNDA
Batzordea

ERAKUNDA
ERAKUNDA

ERAKUNDA

«ERABAT GUTXIETSITA DAGO GURE LANA, ETA GEHIAGO BALORATU BEHARKO LITZATEKE»



E. MAIZ

ANA ETXEZARRETA ZAINZA LANGILEA

Gustukoa du zaintza, lana Ana Etxezarretak, eta Uzturre zentroan egiten du lan; kexu agertu da oso langile aritzen direlako lanean, eta greba feministarekin bat egitea ezinezkoa zaiela azaldu du.

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

Ana Etxezarretak (Tolosa, 1969) urteak daramatza adinekoak zaintzen, eta betidanik gustatu izan zaio egiten duen lana. Greba feministari begira, ordea, argi hitz egin du: «Minimoetan gaude. Lana egitea tokatzen zaienentzat ezinezkoa da, ezin ditugu langileak murriztu».

Uzturre zentroko langilea zara. Zein da zuen egunerokoa?

07:30ean sartzen gara, eta aitona-amonak garbitu, jantzi eta gosaltzeko prestatzen ditugu. Gosaria eman, eta bakoitzari dagozkion sendagaiak ematen dizkiogu. Beraiek egin ezin dituzten gauza horiek guk egiten ditugu. Hamar orduko ordutegia dugu, eta astelehenetik igandera egiten dugu lan. Aste oso batez lan egiten dugu, eta hurrengoan jai.

Zazpi egun jarraian?

Guk onartu dugun ordutegia da, ez da enpresak inposatu diguna. Aukera eman ziguten, eta baiezkoa atera zen. Hala ere, ez da ordutegi batere egokia. Gogorra da. Zazpi egunetan hamar orduz lan egitea, oso gogorra egiten da, eta oso gaizki bukatzen dugu astea.

Lanak egiteko zer moduz moldatzen zarete?

Gaizki. Oso langile gutxi gaude. Aldundiak horrela jarrita ditu ehunekoak, eta ez ditu aldatu nahi, edo ez du asmorik azaltzen aldatzeko. Egia esan, oso eskasa da. Orain ditugun aitona-amonak ez dira orain urte batzuetakoak bezalakoa. Urte gehiago betetzen dituzte, eta zaintza handiagoa behar dute. Horrek esan nahi du, zaintza lanetarako pertsona gehiago behar direla, eta ez gaude nahikoa. Oso gutxi gaudela esango nuke.

Nik zainketa aringarrien solairuan egiten dut lan. Suposatzen da, behar handiak dituzten pertsonak daudela. 17 pertsona ditugu, eta bi langile bakarrik gaude. Goizean, ordu eta erdiz edo bi orduz, hirugarren pertsona bat sartzen da. Bestela egun guztirako, bi pertsona gaude.

Eta laguntza behar dutenean, zer?

Itxaron egin behar dute, ezin da besterik egin. Oso gaizki gabilta, eta kexatzen gara, baina, lehen esan moduan, ratioak jarrita daude, eta ez dago aldatzeko asmorik. Senideek ikusten dute nola ibiltzen garen, eta beraiei ere esaten

diegu kexatzeko; indarra egiteko beraiek ere. Baina beldurra edo izaten dute, eta ez dira ausartzen.

Guztira, zenbat langile zaudete?

80 bat izango gara, eta zentroan 180 bat aitona-amonak daude. Egunezko zentroaz gain, solairuak ditugu eta, horrez gain, behar bereziak dituztenak.

Horietatik zenbat zarete emakumezkoak?

Zaintzaile bezala bi gizon daude. Bestela, administrazioan gizonetzko bat dago, eta mantentze lanetarako beste bat. Beste guztiak emakumeak gara. Lehen bost gizonetzko zeuden, eta orain bira murriztu da.

Gustuko lana duzu?

Bai. Asko gustatzen zait. Betidanik. Askotan entzun behar izan dut: «Lana zer egiten duzu, ipurdiak garbitzen?». Eta ez zait batere gustatzen. Hori eta beste gauza batzuk egiten ditugu. Nik uste dut gure aitona-amonak ez direla bakarrik ipurdiak garbitzeko. Askoz gehiago dira. Beraien bizitzetako azken urteetan ahalik eta ondoena bizitzea merezi dute.

Errealitate gordinak bizitzea tokatuko zaizue.

Bai. Ikaragarri.

Bakardadea dago?

Bai, handia. Behar gehiago dituzte, eta ezin dizkiegu eman. Ez gara iristen denengana.

Eskertzen dute zuen lana?

Denetik dago. Batzuek bai, eta beste batzuek ez. Gure lana dela, eta obligazio moduan bizi dute. Neskameak garestu pentsatzen dute. Eta beste askok eskertu egiten dizute. Denetarik dago.

Zuen eguneroko borroka, lan erraza da?

Ez da lan erraza. Bakoitzak du bere izaera, bere gaixotasuna, ... Eta ez da erraza. Moldatu egin behar izaten dugu, eta asko aguantatu behar izaten dugu. Baina, ondo ez daudelako daude zentroan, eta horrek ulertzen laguntzen zaitu. Zerbait esaten badizute, edo jotzen bazaituzte, badakizu ez dela beraiek nahi duelako. Ez daude ondo, eta gaitzak ere gauza horiek ekartzen ditu.

Pazientzia beharko da.

Bai. Erantzun txarrak, jotzea, ... Dena ulertu egin behar da, eta hori eramaten jakin egin behar da.

Familiekin zer moduzko harremana duzue?

Denetarik dago. Aldea dago, ordea, gutxi edo asko joaten direnen artean. Senidea asko joaten bada, oso harreman ona izaten dugu, eta gutxiago joaten badira, bada, gutxiago sortzen da. Askok beraien erruduntasuna ere izaten dute; ez dira ondo sentitzen zentrorako eraman dituztelako, eta horrek askotan gure lanean eragiten du. Gehiago exijitzen digute. Aldiz, normalean asko joaten direnek ulertzen dute gure lana. Ulertzen dute zein zailtasun ditugun, ulertzen dute gutxi gaudela eta, asko, laguntzen saiatzen dira. Horiekin oso harreman ona izaten dugu. Kanean ikustean ere egoten gara, eta horiekin harreman polita sortzen da.

Etxeko moduan dituzue, beraz.

Denetarik dago. Badira zortzi urte daramatzatenak, eta izan ditugu 20 urtez egon direnak ere, eta urte asko dira. Eguneroko-eguneroko elkarrekin egoten gara, eta estimua hartzen diezu. Beraien bizitza nolakoa izan den ezagutzen duzu, eta ulertu egiten dituzu.

Nahiz eta langileak izan, zailena, heriotza izango da.

Bai. Eguneroko gaude elkarrekin, eta pena izaten dugu. Baina etxera joan, eta ahazten saiatu behar dugu, bestela, bizi-modu normal bat izatea zaila da. Ez badugu tarte bat jartzeko, askotan, gaizki pasatzen dugu. Harremana egiten duzu, eta pena ematen dizu. Neure burua ere ikusten dut. Urteak harrapatzen baditut, beraiek bezala egongo naizela pentsatzen dut. Eta, behin adin batera iritsita, zer pentsatua ematen dizu. Nik beti eskatzen dut, aldundietako jendea-eta gehiagotan etortzeko.

Zergatik?

Lehen emakumeek etxeetan doan egiten zuten lan bat da hau. Orain, etxeetan egiten da, baina baita etxetik kanpo ere. Eta lan baldintza kaskarrak ditugu, eta beharrak handiagoak dira: soldata, langileen ehunekoak, ... Guk ere egin behar dugu indar pixka bat, baina agintariek ez dute ikusi nahi zer dagoen. Nik beti eskatzen diet etortzeko. Asko hitz egiten dute, eta dena ondo eramatea nahi dute, baina, jende gutxiarekin, esaten duten hori guztia ondo egitea zaila da. Pertsonekin ari gara lanean, eta pertsonak gauza asko behar dituzte. Ez da, bakarrik, garbitu eta jana ematea, baizik eta, beraiekin egotea, eta maitasuna ematea. Eta hamar orduko lanarekin ere ez gara iristen. Familia ere oso garrantzitsua da. Ez da nahikoa adinekoa zentrorako eramatearekin. Joan egin behar dute bisitan, ahalik eta gehien. Gure aitona-amonentzako oso garrantzitsua da beraien familia. Zenbat eta gehiago joan, askoz hobeto egoten dira.

Euskal Herriko mugimendu feministak greba deitu du. Zentrorako iritsi da mezua?

Zerbait iritsi da, baina gutxi. Horrelakoetan, ordea, beti esaten dugu, ez dela egun bateko kontua. Urte guztian jorratu behar da, eta eguneroko.

Greba egiteko aukerarik izango duzue?

Zaila izango da, eta ez dut uste posible izango denik. Guztiok emakumeak gara eta, lehen esan bezala, hain langile gutxi gaude, ezinezkoa dela. Greba egiteko, langile minimo batzuk eskatzen dizkigute, eta gu minimoetan gaude. Aukera gutxi dauzkagu. Lana egitea tokatzen zaienentzat ezinezkoa da, ezin ditugu langileak murriztu. Borroka handia daukagu, eta nagusiek ez dute ulertzen. Zarata ateratzen saiatuko gara, baina eguneroko egin beharra daukagu.

Zaintza erdigunean jarri dute.

Gure kasuan, ama garenok, oso ordutegi txarra daukagu. Etxeko kontuak ondo eramateko zailtasun handiak izaten ditugu, batik bat, goiz eta arratsalde lan egiten dugunean. Esaterako, haur txikiak dituztenentzat, ez dute erraztasunik ematen, eta ez dira batere saiatzen malguago izaten. Erabat gutxietsita dago gure lana, eta emakumeon lana gehiago baloratu beharko litzateke.

Zein langile mota zaudete?

Denetarik gaude, baina gazte asko sartu da. Eta helduagoak ere badaude, eta lan oso gogorra da. Pisua erabili beharra daukagu, eta oso nekatuta bukatzen dugu. Gazteek ere hori esaten dute, eta batzuk, dagoeneko, ez dabilta bizkarretik oso ondo. Fisikoki oso lan gogorra da, eta psikologikoki ere eragina dauka. Baina hori ez dute ikusi nahi, eta horretarako etorri egin behar dute, denborarekin, eta ikusi, eskatzen duguna ez dela eskatzeagatik, baizik eta, aitona-amonentzako eta guretzako hobia delako.



Azucena Alanis Gutierrez, ezkerrean, eta bere lagun Deisy Urbina Acuña, eskuinean, Asteasuko parkean. **IRATI SAIZAR**

«EGUNEAN SOILIK BI ORDU DITUGU ATSEDEN HARTZEKO»

DEISY URBINA ACUÑA, AZUCENA ALANIS GUTIERREZ ETA GLEYSIS OCHOA ZABALA
BARNE LANGILEAK

Lana egin, aurreztu eta familiari lagundu. Ez dute besterik buruan hiru nikaraguarrek. Barne langileak dira bi, eta orduka egiten du lan besteak. Iraun egin nahi dute egiten duten horretan, eta, askotan, azkarregi konformatzen direla jakin arren, horixe da haien helburua.

Irati Saizar Artola Asteasu

Arratsaldeetan dituzten bi ordu libreak aprobetxatuz elkartu dira hiru lagunak Asteasuko plazan. Lau urte daromatza Tolosaldean Deisy Urbina Acuña (Nikaragua, 1979) eta hiru urte Asteasun, bere koinata, Gleysis Ochoa Zabala (Nikaragua, 1982). Haien lagun Azucena Alanis Gutierrez (Nikaragua, 1978), berriz, bi urte beteko ditu, laster, barne langile, Asteasun. Lanera sartzeko ordua iritsi zaio elkarrizketaren erdian Ochoari, eta beste bi lagunek jarraitu dute galderei erantzuten.

Zein da zuen gaur egungo egoera?

Deisy Urbina: 2015ean iritsi nintzen Euskal Herrira eta sei hilabete ondoren hasi nintzen egungo lan honetan. Iritsi-takoan, Irunen egin nuen lan, hilabetez, ordezkapen bat egiten. Baina jainkoari esker, lana topatu nuen, hemen, Asteasun, eta, ordutik, barne langile moduan ari naiz. Amaalaba batzuk zaintzen ditut, baserri batean.

Gleysis Ochoa: Ni barne langile gisan hasi nintzen, baina

zaintzen nuen emakumea berehala hil zen, 99 urte baitzitu. Eta egun, orduka egiten dut lan. Lanik ez zait falta izan behintzat.

Azucena Alanis: Nik, berriz, Asteasuko gizon bat hogeita lau orduz zaintzen egiten dut lan, kaleko pisu batean.

Zergatik aukeratu zenuten barne langileak izatea?

D.U.: Gustatuko litzaiguke beste zer baitetan aritzea, baina beste edozein lanetarako lehen momentutik paperak eskatzen dizkizute. Eta inork nahi ez duen lana da barne langilearena. Oso astuna da, gau eta egun egon behar duzulako hor. Egunean soilik bi ordu ditugu atsedeen hartzeko.

G.O.: Nire kasuan ere berdin. Paperik ez daukadanez, ahal dena egin behar.

D.U.: Gainera, ezinezkoa da Nikaragutatik etorri berritan lan egin eta logela baten alokairua ordaintzea. Horrela ezin duzu aurreztu. Lanak onetik duena da, beti leku berean zaudela, bestela, lana leku batean egin eta lo beste batean egiten baduzu, hara eta hona ibili behar izaten da.

Paperak lortzeko prozesuan zaudete?

D.U.: Nik apirilaren 2an jasoko dut erresidentzia txartela. Hiru urte bete ditudanez Espainian erroldatuta, behingoz legez edukiko ditut paperak.

A. A.: Erroldatzeaz gain, garrantzitsua da baita ere lan kontratua edukitzea, eta beste kontua da ea nagusiek egiten dizuten. Zeren, hori gabe, txartelik ezin dezakezu lortu.

Nolakoa da zuen egunerokotasuna?

D.U.: Nik, adibidez, baserrian egiten dut lan eta ez da pisu batean lan egitea bezalakoa, zeren, lan ezberdin gehiago egiten ditut; baratzean eta animaliekin aritzen naiz, adibidez.

G. O.: Nik senar-emazte batzuk zaintzen ditut. 9:00etatik 14:00etara egoten naiz haiekin eta, arratsalde, 16:00etatik 18:00etara. Gaua Deisy bizi den baserrian pasatzen dut.

A. A.: Nik, berriz, pisu batean pasatzen ditut hogeita lau orduak. Bi ordu ditut egunean atsedena hartzeko. Atsedena orduak deitzen diete, baina, errealitatean ez dira. Atsedena hartzeko baino gehiago deskonektatzeko dira. Buelta bat ematera joaten zarenetan burua beste leku batean izaten duzu, baina, gero, kartzelara bueltatu behar duzu, kartzela baten modukoa baita gure lantokia. Baina ez daukagu besterik. Ez gara herrialde honetakoak, eta jasatea besterik ez zai-gu geratzen.

G. O.: Eta hori guztia, gure familietatik urrun.

D.U.: Buruan daukagun gauza bakarra lan egitea, aurrezte eta Nikaraguan daukagun familia laguntzea da.

Nikaraguara bueltatzeko aukerarik izan duzue inoiz?

A. A.: Hiruretako inor ez gara bueltatu. Gainera, erresidentzia txartelik gabe ezin dugu bi-daiatu. Zeren, joaten bazara, gero ezin zara itzuli.

D.U.: Jainkoak nahi badu behintzat, abenduan joango naiz nire bi alabak, 10 eta 19 urtekoak, eta gurasoak ikustera. Lau urte egingo ditut haiek ikusi gabe. Oso gogorra da hona etorri eta bakarrik sentitzea. Hasieran etsita nengoen. Bueltatzea eta guzti pentsatu nuen, eta nire koinatua ekarri nuenean lasaitu egin nintzen.

Familiakoekin harremana mantentzen duzue?

A. A.: Egunero-egunero hitz egiten dugu. Horrexek poztzen du bat. Egia esan, badaude nagusi batzuk egunean zehar mugikorra erabiltzen ere uzten ez dutenak. Gure nagusiek, gutxienez, ez digute debekatzen.

D.U.: Nik lagunak baditut mugikorrarekin ibiltzen uzten ez dietenak. Niri ez didate inoiz debekatu; are gehiago, mezuak erantzun ditzadala ere esaten didate, batzuetan.

A. A.: Durangon lan egin nuenean, zaintzen nuen emakumeak ez zidan uzten mugikorra erabiltzen, logelan uzten nuen egun osoan. Emakumea lotara sartzen nuenean erantzuten nituen mezu guztiak, eta askotan goizeko laurak arte egoten nintzen esna. Baina ez zitzaidan besterik geratzen, hark kaleratzen baninduen, ez nuen edukiko nora joan.

Zer baldintzatan egiten duzue lan?

D.U.: Niri beti ordaindu izan dizkirate oporrak. Baina baditut lagunak oporrik ere ez daukatenak. Nik alde horretatik kexarik ez dut. Batzuetan, beharrak eraginda, dirua aurreratzeko eskatu beharra ere izan dut, Nikaraguan ezbeharren bat edo gertatu izan zaidanean, eta nire nagusiek inoiz ez didate ukatu. Alde horretatik oso eskertuta nago.

Helburuak jartzeak denbora azkarrago pasatzea dakar?

D.U.: Ni hona etorri nintzenean, helburu garbi bat nuen: Nikaraguan egiten hasita geunden etxea ordaindu ahal izatea. Jainkoari eskerrak ez zait asko falta bukatu eta ordaintzeko.

G. O.: Deisy Euskal Herrira etorri zenean, Nikaraguan bere etxea nola egiten ari ziren ikusten nuen eta honela esaten nion: etxe honek malkoak, irriak eta denetarik darama.

A. A.: Behin, hona etorrita, lana erruz egitea besterik ez nuen buruan. Valentzian aritu nintzen lanean, Bilbon, Durangon, Abadiñon... Maleta txiki bat neraman, hiruzpalau trapu zaharrekin. Ni ere etxea eraikitzen ari naiz Nikaraguan, eta dagoeneko laurdana soilik falta zait etxe guztia ordaintzeko. Eta diru hori lortu egingo dut, bai ala bai.

Barne langileak baloratuta daudela uste duzue?

A. A.: Nagusien arabera dela esango nuke. Nekatuta zaudela ikusten zaituztenean atsedena ematen dizutenik ere bada. Ez da, ordea, nire kasua.

D.U.: Niri uzten didate, eta baloratua sentitzen naiz. Batzuei logelara sartzen ere ez diete uzten, eta hori ez da pertsona baloratzea. Zeren, atsedena hartzea momentu batean eskubide bat da.

A. A.: Beste etxe batean gertatu zitzaidan, emakumeak beti bere aldamenean egotea nahi izaten zuela. Telebista ere berarekin ikusi behar izaten nuen, eta gainera, euskaraz. Aldatzeko eskatu nion behin eta honela erantzun zidan: «Hemen nik agintzen dut, eta horretarako ordaintzen dizut». Eta adibidez, beste etxe batean oso-oso ondo tratatu ninduten. Hilabetea bukatzeko 10 egunen faltan hil zen emakumea, eta haren familiak hilabete osoko soldata, opor guztiak, eta aparteko diru bat ere eman zidan. Guztira, 2.800 euro. 500 euro niretzako gorde, eta beste guztia nire familiari bidali nion. Zortea izan nuen, eta segituan aurkitu nuen beste lan bat.

Zer da gogorrena zuen lanean?

A. A.: Hogeita lau ordu irautea. Horretan zauden arte ez dakizu nolakoa den lan hau. Errazena da bisitan joatea, 10 minutuz egotea eta alde egitea. Askorekin gertatzen zait hori. Eta beste kontua da Nikaraguako jendeak pentsatzen duela Espainiara lan bila etorri garelako aberatsak garela.

D.U.: Nikaraguan jendea oso okertuta dago. Hona etortzen direnak segituan konturatzen dira zein den benetako errealitatea.

«Egia esan, badaude nagusi batzuk egunean zehar mugikorra erabiltzen ere uzten ez dutenak»

«EMAKUMEOK EZIN DUGU BETI MUSU TRUK LAN EGIN»



Lurdes Saizar, bere etxe atarian. I. SAIZAR

LURDES SAIZAR ZAINITZAILEA

Gogoko du egiten duen lana, eta gogoko du jendea zaintzea. Argi du, ordea, egiten duen hori lana dela, gizatasunez egiten dela eta, horrek, aitortza merezi duela.

Irati Saizar Artola Berastegi

Jendaurreko lana utzi, eta zaintza lanetan denbora darama Lurdes Saizarrek (Berastegi, 1958). Haurrak zaindu zituen hasieran, eta duela sei urte hasi zen helduak zaintzen. Leitzazuen bizileku duela hiru urtera arte eta, egun, Berastegin bizi da, bere jaiotetxean. Otsaila amaieratik bere etxean egiten du lan; osaba bat hartu du, eta hortik jasotzen du soldata.

Noiz hasi zinen zaintza lanetan?

Urte luzez jendaurrean egin izan dut lan, eta duela sei urte inguru hasi nintzen pertsona zaharrak zaintzen. Baina lehena-gotik ere egin izan dut zaintzan lan, haurrak zaintzen. Hamabi urterekin Berastegiko eskola garbitzen hasi nintzen, eta hamalau urtez geroztiko jendaurrean egin dut lan, denda eta

tabernetan. Nekatu eta erre egin nintzen, ordea, eta etxe ondoan haurrak zaintzen hasi nintzen. Bederatzi urtez aritu nintzen lan horretan.

Eta, haurrak zaintzetik, helduak zaintzera pasatu zinen.

Bai, sei urte izango dira dagoeneko. Beti, ordea, kontratupean egin dut lan. Nire opor, gizarte segurantzaz eta eskubide guzti-guztiekin.

Erraza da zaintza lanetan kontratu bidez aritzea?

Nik beti exijitu izan dut lan kontratua eta, egia esan, ez dut inoiz arazorik izan. Nik beti sartu izan ditut nire zortzi orduak. Eta, ordutegi aldetik, beharren arabera moldatu izan naiz, goizean gehiago eta arratsalde gutxiago eginez, edo alderantziz; beharrak eskatzen zuen moduan. Argi izan dut kontraturik gabe ez nuela lanik egin nahi, aitortza behar dugu emakumeok.

Malgutasuna eskatzen duen lana da?

Baietz esango nuke. Leitzazuen zaindu nuen gizonak alzheimerre zeukan eta, nik nire zortzi orduak egiten nituenean, emaztearekin bakarrik geratzen zen. Behin, ordea, emaztea operatu egin zuten, eta lau hilabetez barneko langilea izan nintzen haien etxean. Orduan, pertsona bat zaintzetik bi zaintzera pasatu nintzen, eta soldata ere bikoitza jasotzen nuen.

Atsedon ordu eta egunak eta behar bezala errespetatzen zenituen?

Bai, bai, guztiak behar bezala errespetatzen nituen. Gero, gizona hil egin zen, eta emakumea lau orduz zaintzen hasi nintzen. Orduan, aldameneko etxebizitzan bizi ziren ume batzuk beste lau orduz zaintzeko aprobetxatu nuen. Leitzan bizi izan naizenean, beti etxeetan ibili izan naiz lanean, era batera edo bestera nire zortzi orduak betetzen. Gero, Berastegira etorri nintzen bizitzera eta, orduan pentsatu nuen, Tolosa ingurura joan beharko nuela lanera.

Eta herrian bertan suertatu zaizu lana.

Bai, hala da. Joan den udan Ategi tabernan egin nuen lan. Eta, orain, nire osabarekin hasi naiz lanean. 86 urte ditu eta, orain arte, udalak Gaztainondon dituen tutoretzapeko etxebizitzetan bizi zen. Hark galdetu zidan, bera zaintzen lan egin nahi ote nuen. Lan aukera bat ikusi nuen, eta horri heldu diot. Nire etxera etorri da bizitzera, eta nik nire etxetik zainduko dut.

Ez zen erabaki erraza izango.

Erretiroa lortzeko bost urtez lan egitea tokatzen zait. Beste leku batera lanera joan beharrean, nire etxean bertan lan egitea aukera bat zela ikusi nuen. Osaba etxean hartu dut, baina nire eskubide guztiekin ari naiz lanean. Soldata bat daukat, nire gizarte segurantzarekin, nire ordainsariekin

eta nire jai egunekin. Azken finean, kanpoan egingo nukeen lana, etxean egiten dut. 24 orduz dago nire etxean, hori ere horrela da, baina dena baloratuta dago. Zaintza lanak hala behar du izan.

Eta, jubilatzean, zer egingo duzu?

Nik lan hau bost urterako hartu dut. Jubilatzean ikusi egin behar, bai ni nola dagoen, bai osaba nola egongo den.

Zure egoera berean dagoenik izango da.

Bai, eta horixe aldarrikatu nahi dut. Etxeetan ni bezalako emakume asko eta asko daude, dela osaba edo izeba zaintzen, dela gurasoak zaintzen. Zaintza hori, ordea, ez dago lan bezala onartuta. Baina egiten duguna lana da. Emakumeok ezin dugu beti musu truk lan egin.

Familiakoa izateak, izango du onuratik ere.

Bai, azken finean, osaba-iloba izatearen maitasuna hor dago. Lan honetan, azkenean, gizatasun asko dago, eta gizatasunez egiten da lan. Familiakoa izanagatik, baloratuta sentitzea garrantzitsua da, zeren, asko ez daude hala.

Lana gustatzea ere garrantzitsua izango da.

Horregatik egiten dut nik, gustatzen zaidalako. Hutsune asko betetzen dizkit, bete egiten nau. Beti pertsona zaharrez inguratuta egon izan naiz, eta oso maitatua sentitu izan naiz jende helduarekin. Azken batean, nik aukeratu dut honetan lan egitea.



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

TXOOOTX

ANIMATU!!

URTARRILAK 19

APIRILAK 27

TOLOSATIK AUTOBUSA

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM

«OSO LAN GOGORRA EGITEN DUTE ZAINZAILEEK»»

PEPI IBARGUREN LASA

MENPEKO PERTSONA BATEN SENIDEA

Bakarrik bizi zen ama zaintzeko, pertsona bat kontratzeko erabakia hartu zuten familian; esperientzia oso ona izan zela kontatu du.

Eneritz Maiz Etxarri ikaztegieta

Ibarguren Lasa familia zazpi senidez osatua da, eta Pepi Ibarguren (Ikaztegieta, 1959) da amarekin ia ordurik gehien pasa dituenetakoa. Amari hanka moztearekin batera, etxean zaintzaile bat kontratatzeke erabakia hartu zuten familian. Hondurasko emakume bat kontratatu zuten eta, ama duela 3 urte hil izanagatik, gaur-gaurkoz, oraindik ere, harreman oso ona mantentzen dute zaintzailearekin.

Zuen kasuan, ama zaintzeko noiz iritsi zen zaintzaile baten beharra?

Aste baten barruan, amari hanka moztu behar izan zioten. Ez genuen horrelakorik espero eta, hanka gangrenatu zitzaiolako, astebeteko epean erabaki behar izan genuen guztia. Bost urte lehenago ultzera bat izan zuen, eta gero gaiztotu egin zitzaion.

Ama bakarrik bizi zen.

Bai. Independentea zen guztiz. Ez zuen inoren beharrik.

Nola hartu zenuten zaintzaile bat hartzeko erabakia?

Bera ospitalean egon zen garaian, hasierako egunetan, pastilen ondorioz, ez zen bere buruaren jabe. Kordea itzuli zitzaionean, berak segituan galdetu zigun: «Zer egiteko asmoa duzue nirekin?».

Zazpi senide gara eta, momentu hura iristerako, aldeztu aurretik hitz egin genuen gure artean. Garbi esan genion: «Ama, zu etxera; etxea jada prest dago zu hartzeko». Gorpildun aulkian itzuli zen etxera, eta gauza batzuk kendu egin behar izan genituen etxetik. Ohe egokitu bat jarri eta, beste egokitzen txiki batzuekin, prest jarri genuen guztia. Guztiok ados jarri ginen, ama etxera ekartzeko.

Erraza izan zen zaintzailea bilatzea?

Bai, etxera etortzerako hitz eginda geunden, aldeztu aurretik herrian lanean aritua zen emakume atzerritar batekin, Norarekin. Berak segituan esan zigun ez zuela guretzat karga bat izan nahi, baizik eta lagundu egin nahi zigula.



Zuen kasuan ere, zaintza lanetarako atzerritar bat hartu zenuten. Nola hartu zuen amak?

Oso gustura. Bera oso gustura egon zen Norarekin, eta Nora gure amarekin ere bai. Gaixo ona izan zen ama. Burua argi izan zuen denbora guztian, eta estimu handia hartu zion Norari. Nahiz eta hanka bakarra izan, beti lagundu egiten zion zaintzaileari, berak bizkarra mindu ez zezan. Harreman ona egin zuten. Era berean, amak argi esan zigun, asteburuetan, bere seme-alabekin egon nahiko zukeela.

Asteburuetan, beraz, seme-alabok arduratzen zuten ama zaintzeaz?

Bai. Asteburuetan, txandaz txanda egiten genituen, larunbatak eta igandeak. Horrela, Norari jai ematen genion. Sei ahizpa gara, eta anaia bat. Nire anaiak, orde, dutxatu, pijama aldatu eta horrelakoak ez zituen egiten. Amari igurtzi eta muxuak eman bai, baina, lan horiek egitea, Maribi koinatari egokitu zitzaion, anaiaren partez.

Kasu horretan ere, orduan, emakumeak hartu behar izan zuen ardura hori.

Bai, horrela da. Koinata bera prest azaldu zen lan horiek egiteko. Gure aldetik ez zen arazorik izango nahi ez bazuen ere, baina beti prestutasuna azaldu izan zuen gurekin bat egiteko.

Kontratuarekin hartu zenuten zaintzailea?

Zazpi hilabete, paperik gabe zegoenez, ezin izan genion kontraturik egin. Ez zen erraza izan, baina paperak lortzen lagundu genion. Eta gero kontratua egin genion.



Amak oso garbi zuen, besteok kobratzen genuen moduan kobratu behar zuela Norak ere. Aparteko orduak kobratu behar zituela, eta opor egunak ere izan behar zituela. Oso lan gogorra egiten dute zainzaileek, eta oso baldintza gogorretan bizi dira. Noraren kasuan, hiru urte zeramatzan, Hondurasera, bere seme-alabengana eta familiarengana joan gabe. Irabazten duten ia soldata guztia bidaltzen dute hara, eta familia osoa hemen irabazitakoarekin bizi da Hondurasen. Psikologikoki oso gogorra izan behar du.

Esperientzia ona izan da?

Guretzat oso ona, eta baita amarentzat berarentzat ere. Oso-oso gustura egon zen. Igande iluntzetan, Nora etxera

«Amak oso garbi zuen, besteok kobratzen genuen moduan kobratu behar zuela Norak ere»

etortzen zenean, amari aurpegia aldatzen zitzaion. Nahiz eta bere seme-alabekin egon, Norak gehiago lasaitzen zuen. Gure aldean goxoagoak dira, mimosoagoak eta lasaigoak. Eta gaixoak hori behar du, mimoak eta pazientzia.

Beraz, asteburuetan jai egiten zuen langileak.

Bai, larunbat goizetik igandeko gaueko hamabiak bitartean. Baina zubi askotan jai ematen genion, eta Bilbon gertzen zen lagunekin. Edo beste edozer behar bazuen ere, gu laguntzeko prest geunden. Ikastaroak egin zituen gurekin egon zen bi urte eta erdian; edo medikutara joan behar bazuen ere, erraztasunak ematen genizkion.

Kasu hauetarako diru laguntzarik bada?

Bai, bai. Hanka moztean udaletxeko gizarte zerbitzuetara joan ginen, eta bertatik bideratu zuten: ohea, gurpildun aulkia,... Eta, behin langilea kontratuarekin jartzean ere, Gipuzkoako Foru Aldunditik laguntzak jaso genituen. Laguntzak, egon badaude.

Euskal Herriko mugimendu feministak iaz eta aurten ere greba deitu du. Baduzu horren berririk?

Ez naiz gehiegi enteratu, baina iaz bezala, aurten ere, Tolosaldean egingo diren mobilizazioetara joango naiz. Eta emakumeen alde hasi diren borroka hauekin erabat ados nago.



Elduaingo Udalak M8ko grebarekin bat egiten du

«AUTISMOAK KAUSA BAKARRA EZ DUENEZ, BETI EGONGO DA LEKUA IDEIA KALTEGARRIENTZAT»»

OLGA PEÑAGARIKANO

IKERTZAILEA

EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko ikertzaile buruak koordinatuko du autismoari bidea errazten dion garun mekanismoa identifikatzeko Europako egitasmoa. ERA-NET Neurom sareak 800.000 euro eman dizkio hiru urteko ikerketari.

Edu Lartanguren BERRIA

Olga Peñagarikano (Tolosa, Gipuzkoa, 1974) EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko ikertzaile burua da. Euskal Herriko, Frantziako, Belgikako eta Alemaniako lau talde koordinatuko ditu 2021 arte, autismoaren kausa neurologikoa identifikatzen saiatzeko ikerketan. Ia hirurogei umetik batek dauka autismoa.

Lehen ere aritu zara lanean autismoaren gaian. Nolako ikerketak egin dituzu orain arte?

Autismoa gaitz psikiatriko bat da, garunaren garapenean gertaturiko arazoek eragindakoa. Baina oraindik ez dakigu zein den gaitza eragiten duen oinarri neurobiologiko zehatza, eta, ondorioz, ezin izan dira botikak garatu gaitzarekin lotutako gabeziak tratatzeko edo konpentsatzeko. Hori egiteko, hil ala bizikoa da animaliekin autismo ereduak garatzea, pertsonekin egin daitekeen ikerketa oso mugatuta baitago garuna ikertzeko erabil ditzakegun teknikei dagokienez. Nire lana animalien portaera ereduak aztertzea izan da, batez ere saguenak, eta haiekin ikertzea gaitza eragiten duten kausa neurobiologikoak, eta botikak probatzea, sintomak hobetzeko.

Europako ikerketa koordinatuko duzu. Nola lortu du

zure taldeak Europako ikerketan buru izatea alor horretan?

Batez ere AEBetan ikasi nuen; han hamar urte pasatu nituen autismoaren eta horrekin loturiko gaitzen inguruan lanean. Duela hiru urte Europara itzuli nintzenean, harritu egin ninduen ikusteak zein ezagutza gutxi zegoen gaitzaz, eta zein baliabide gutxi eskaintzen zizkieten haren ikerketari, AEBen aldean. Han, lehentasunezko gaitzat dute; izan ere, ehun pertsonatik biri eragiten die! Horregatik, Europako beste talde batzuekin jarri nintzen harremanetan, antzeko gaitetan zebiltzanekin: neurogarapena, epilepsia, neuronen migrazioa... Buruko gaitzen Europako ikerketa deialdia atera zenerako, aritua nintzen elkarlanean horretan zebiltzan lanekin; beraz, besterik gabe, deialdi ofizial batean eskatzeko urratsa egin genuen. Gure taldea koordinatzaile gisa arituko da, geuk baitaukagu esperientzia handiena alor honetan.

Nola planteatuko duzu ikerketa? Zer arazo gainditu beharko dituzu lau herrialdeetako taldeak koordinatzeko orduan?

Zorionez, ikerketa proposamena planteatzeko orduan, talde bakoitzak egingo dituen lanak oso argi daude. Gainera, dizi-





«Hil ala bizikoa da animaliekin autismo ereduak garatzea, pertsonekin egin daitekeen ikerketa oso mugatuta baitago»

bestekoa. Edonola ere, kausa neurologiko horiek eragingo dituzte sintomak. Ikerketan, saiaturako gara aurkitzen autismoaren hainbat kausa genetikok nola egiten duten bat neurobiologikoki, animalia ereduak erabiltzen, baita gaixoen zeluletatik kultibaturiko garunak ere, terapiak garatzen hasteko.

Ikerketa batzuen arabera, haur autistek normalak ez diren patroiak dituzte garunetako uhinetan, eta burmuineko gune batzuk gutxiago garatuta. Baina horiek zer dira, autismoaren kausak edo ondorioak?

Portaera batzuek definitzen dute autismoa: giza harreman ez normalak, eta portaera errepikakorak. Portaera zirkuitu neuronalen funtzionamenduaren emaitza besterik ez dira sintoma horiek. Garunaren garapenean edo funtzionamenduan ikusiko ditugun arazoak kausa izango dira, printzipioz, neuronen arteko loturek —tokian tokikoek zein zirkuituen artekoek— erabakitzen baitute portaera, azken batean.

Antza denez, haurtzaroan autismo arazo larriak izan zituzten helduen %30ek epilepsia kolpeak dituzte gero. Autismorekin eta epilepsiaren artean dagoen harremana ikertuko duzue?

Ez dugu hori zehazki aztertuko, batez ere denbora eta dirua mugatuak ditugulako. Baina, bai, epilepsia autismoari loturiko sintoma da, eta ikertuko ditugun autismoaren forma genetikoei epilepsia daukate. Beraz, baliteke horrekin loturiko zerbaitek aurkitzea.

Autismoaren inguruko ezjakintasuna bestelako kalteak eragiten ari da munduan. Zure ikerketak balioko al du autismoaren inguruan sortu duten sasizientzia, besteak beste txertoen aurkako mugimendua, suntsitzen laguntzeko?

Zoritarrez, autismoaren neurobiologia asaldatuak kausa bakarra ez duenez, baizik eta hainbat, beti egongo da lekua ideia kaltegarrientzat eta zentzugabekoentzat. Jende askok ez daki txertoen kontua bultzatu zuen sendagileak txerto hirukoitz birikoa zapuztu nahi zuela —elgorriaren, hazizurrien eta errubeolaren kontrako—, gero berak «txerto seguru» bat garatzeko. Interes ekonomikoak ziren, besterik gabe.

Espero duzue autismoaren gakoa topatzea datozen hiru urteetan? Eta hura saihesteko edo tratatzeko modua?

Lehen esan dudana bezala, gaur uste dugu ez dagoela autismoaren kausa edo gako bakarra, baizik eta hainbat. Ikertzailen helburua kausak zehatuz joatea da, gutxienez gaixoak sailkatu ahal izateko, tratamendu egokia jaso dezaten.

plinarteko taldea izanik, talde bakoitza aditua da bere eremuan, eta, beraz, ez dago elkar zapaltzeko arriskurik. Hau da, guk portaerak ikertuko ditugu, eta haiei dagozkien neurona zirkuituak modulatzeko duen eragina. Horrez gain, botikak probatuko ditugu. Beste talde batek garunaren garapena ikertuko du. Bilerak egiteko asmoa dugu egitasmoaren hasieran, aurtengo ekainean, lanak zehazteko. Gero, beste bat egingo dugu egitasmoaren aurrerapena baloratzeko, eta zuzentzeko, beharrezkoa bada. Talde guztiek esperientzia handia dutenez, ez dut uste arazorik egongo denik ikerketari dagokionez. Beharbada, sortuko dira arazo burokratikoak, herrialde bakoitzak bere arauak baititu. Horiek konponduz joango gara.

Misterioz inguraturiko gaitza da autismoa. Denetatik esan izan da haren kausen inguruan: kutsadurak eragiten duela, alkoholak, tabakoak, jaio aurreko estresak... Zuek gaitz genetiko gisa tratatuko duzue?

Autismoa batez ere gaitz genetikoak da, baina ehunka genek eragiten diote. Ingurumeneko faktoreen nolabaiteko eragina ere badu. Bi eragileok, bakoitza bere aldetik edo batera, garunaren garapenean asaldura sortzen dute, neurri batekoa edo

«GIZONEZKOEI PROIEKTU GEHIAGO EMATEN DIZKIETE»

AMAIA ARRANZ

ARKEOBOTANIKARIA

Amaia Arranz arkeobotanikari tolosarrak gidatutako taldeak aurkitu zuen, munduko ogi arrastorik zaharrena. Orain, Marie Curie beka eman diote, ikertzen jarrai dezan.

Irati Urdaleta/Iñigo Terradillos Tolosa

Emakumeak gutxiengoa dira, oraindik, zientzian ere. Foundation L'Oreal elkartek argitaratutako ikerketa baten arabera, esaterako, zientzia ikasketen lehen kurtsoan, ikasleen %32 dira emakumezkoak. Amaia Arranz, ordea, horri aurre egin, eta zientzialari lanetan ari da Kopenhagen.

Gaur egun, nola dago emakumeen eta zientziaren alorra?

Oraindik gauza asko daude aldatzeko. Nire kasuan, esaterako, nagusi bat daukat eta berak kontrolatzen du taldea. Azken finean, bera da proiektuak lortzen dituen, hau da, dirua lortzen duena eta erabakitzen duena nola eta zertarako erabili. Besteok ikertu egiten dugu, galdera zientifikoak dauzkagu, eta horiei erantzuna aurkitzen saiatzen gara. Lan pila bat daude, baina gizonezkoei proiektu gehiago ematen dizkiete eta beraien lanak gehiago aipatzen dira. Emakume arkeobotanikari artean hitz eginda, ondorioztatu dugu gauza asko daudela aldatzeko. Bigarren mailako bezala sentitzen gara. Izan ere, guk egiten ditugu ikerketak, baina beste batzuk aprobetxatzen dira gure lanaz. Horrela jarraituko dugu, lidergoa sendotu ezean. Txikitatik garatu eta aldatu beharko litzateke hori.

Hutsune bat dago, beraz. Kontu orokortua da?

Bai. Nik hitz egiten dudana emakume bat Ingalaterran dago lanean, bestea Katalunian, bestea Madril... Denok sentsazio bera daukagu. Saiatzen bagara pauso txikiak eman eta erakusten guk ere proiektuak aurrera atera ditzakegula, oso positiboa litzateke. Taldekide bezala denok proiektuak lortzeko gai izango bagina, taldea sendotuko litzateke, eta uste dut hori dela bidea.

Jakin berri duzu Marie Curie beka jasoko duzula.

Izugarrizko sorpresa eta ezustekoa izan da, eta oso pozik nago. Nik beti amestu izan dudana ikerketa proiektua egiteko aukera izango dut beka honi esker. Hasteko gogoz nago.

Bi urterako diru laguntza bat da, nire ikerketa aurrera eramateko. Nagoen lekutik mugitzea eskatzen didate, eta Pariseko Museo Nazionalera joango naiz. Horrela, batez ere, formazioa sustatu nahi dute. Niretzako izugarrizko aukera da. Izan ere, Kopenhagen arkeobotanikari bezala ni

bakarrik nago, baina nahiko nuke beste norbaiten esperientziatik ere ikastea. Parisen aukera hori edukiko dut, 50 arkeobotanikari inguru daudelako.

Bertan egingo duzun ikerketa zertan oinarrituko da?


Elikagaiekin jarraitu nahiko nuke. Elikagaien ikerketa orain hasi da gartzten, orain arte ez genekien existitzen zenik ere. Ikertu nahi dut, gizakia ehiztari biltzaile izatetik nekazari izatera igarotzean, nola aldatu ziren elikagaiak eta jaten zutena.

Orain Pariserako joango zara bi urterako, baina Kopenhagen duzun proiektua amaituko duzu?

Bai, noski. Espero dut Marie Curie lortu dudana arren, Kopenhagera itzultzeko aukera ere edukitzea. Gainera, bertan klaseak ematen jarraituko dut.

Hango taldearekin aurkitu zenuen nekazaritzan hasi aurretik gizakiak ogia jaten zuela.

Uste dut horko material batzuk ere nire proiektuan sartuko ditudala eta haiekin kolaboratzen jarraituko dut ziur. Orain, jakin nahiko nuke ogiaz gain zer jaten zuten. Badakigu zereaa-



Amaia Arranz arkeobotanikari tolosarrak Marie Curie beka irabazi berri du. IÑIGO TERRADILLOS

lak jaten zituztela, baina ez dakigu tuberkuluekin, esnearekin, eztiarekin, odolarekin edo koipeekin zer egiten zuten. Horrelako osagaiak noiz erabiltzen hasi ziren ikasi nahiko nuke. Orain arte, zeramiketan oinarrituta, ikusi dugu Neolito garaian hasi zirela esnekiak erabiltzen edo ezta jaten. Nik badut susmoa, zeramikaren aurretik bizi ziren Neolito garaiko beste gizakiek eta ehiztari biltzaileek ere, duela 20.000 urte inguru, ezta jaten zutela eta esnea kontsumitzen zutela.

Aurkikuntza horiek egiteak zertarako balio du?

Orain arte uste genuen guztia aldatzen da. Egin dugun historian ehiztari biltzaileak landareak jaten hasten dira, gero pixkana ereiten, jarraian gure nekazaritza sortzen da... Beti oso finko izan dugu gure iruditerian, baina, horrelako ikerketek erakuts dezakete, gure ingurunean ditugun animalia eta landareekin izan genituen erlazioak ez zirela uste genuen bezalakoak izan.

Marie Curie beka lortzea ez da erraza.

Urtero jende gehiagok bidaltzen ditu aplikazioak, ikerketak egitea zaila delako. Iristen da momentu bat zure bizitzan, non proiektuak eskuratu behar dituzun, bestela ez daukazulako jatekorik. Jende gero eta gehiago dago egoera horretan. Aurreko urteetan 8.000-9.000 pertsonak bidali zituzten aplikazioak sail desberdinetan: kimi-ka, ingeniariak, fisika, zientzia naturalak... Aurten, lehengo urtean baino mila aplikazio gehiago izan dira. Datuak ikusi nituen eta ezinezkoa iruditu

«Emakume arkeobotanikarion artean hitz eginda, ondorioztatu dugu gauza asko daudela aldatzeko»

zitzaidan, baina zortea izan dut. Proiektua gustatu zaie eta ikusi dute egin daitekeela, eta potentzial handia daukela. Ikerlariontzako pauso handia da. Azken finean, ikerkuntzan askotan egiten dugu lan beste ikerlari esperimentatu baten menpean, eta oso hierarkikoa izaten da. Beka honek ematen dizu aukera zu zeure proiektuaren liderra izateko. Hori, emakumea eta gaztea izanda, oso pozgarria da.

2018 eta 2019 urte oso onak izaten ari dira zuretzat.

Bai, batez ere, gizarteak erakutsi duen interesarengatik. Nik ez nuen espero ogiaren aurkikuntzak horrelako interesa sortuko zuenik, eta horrek asko bete nau. Guk lana diru publikoarekin egiten dugu, gizarteak ordaintzen digu ikertzeko, beraz, ikustea zuk egindako ikerketak interesa daukela eta gizarteak gehiago jakin nahi duela pozgarria da.

Marie Curie emakumea zen eta erradiologian izan zen aitzindaria. Gainera, Nobel sariak jaso zituen fisikan eta kimikan. Eredua da zientifikoentzat?

Bai, eta eredu izan beharko luke neska askorentzat ere. Askotan iruditzen zaigu zientzia gizonen arloa dela, baina, Marie Curie bezala, beste kasu batzuetan ere, emakumeak izan dira oinarritzko zientzia eraman dutenak,

baina ikusezinak izan dira batzuetan. Bera genio bat zen. Garai hartan fisikan eta kimikan Nobel Sari bana jasotzeak meritu handia du.

Aipatzen duzun beste hutsuneetako bat arkeobotanika da. Azken aurkikuntza horiek eman diote balio bat?

Bai. Arkeologian gizonetakoak izan dira nagusi, eta aztarnategietako zuzendariak ere gizonetakoak izan dira. Ikuspegi femenino hori sartzea ere beharrezkoa da. Agian topiko bat eman go du, baina egia da emakumeok arreta handiagoa jartzen diegula gauza txikiei. Ogiaren kasuan, esaterako, gauza txiki batetik informazio garrantzitsua atera dugu. Beharrezkoa da gure ikuspuntua eta gure lana ere hor dagola erakustea, eta horri balioa ematea.

Beste hutsune bat Euskal Herriak zientziari eskaintzen diona da.

Laguntza handiak daude karrerak, masterrak eta doktoretzak egiteko. Zentzu horretan, pribilegiatuak gara, baina, behin doktoregoa eginda, hor geratzen zara. Badaude beka batzuk, baina beste bi edo hiru urte bakarrik dira. Gero, formatzera beste instituzio batera joatera bultzatzen zaituzte. Hori oso ondo dago, baina gero itzultzeko ez dago ezer. Milaka pertsona gara kanpora joan garenak, Euskal Herrian ezin dugulako gure ikerketarekin jarraitu. Iruditzen zait esfortzu handia egiten dela, eta gero beste instituzio batzuk aprobetxatzen dutela emaitza. Nire artikuluko potoloenak Kopenhagen idatzi ditut eta, berez, Euskal Herrian izan beharko luke.

M Martxoak 8

Aldaketa loratuz,
emakumeek* planto!

KO ERRESIDENTZIAK

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Zaldunita egunean, era guztietako moztarrok ikusi ziren, irudimen emariaren erakusle. IRATISAIZAR

Inauterien lehen balorazio positiboa egin du udalak

Jendearen parte hartzea nabarmendu dute, eguraldia lagun izan duten «ezbehar larririk gabeko inauterietan».

Josu Artutxa Dorronsoro

Orokorrean hartuz, udalak aurtengo inauterien inguruko balorazio positiboa egin du. «Eguraldia oso ona izan da, tolosarren imajinazioak, umoreak eta lanek kaleak bete dituzte eta ez da gertakari larririk jazo». Horregatik, udalak tolosar guztiei egin dako lana eskertu die. «Egunez egun, jarritako ilusioa eta inauteriaren parte izateko egindako ahalegina azpima-

rratu nahi dugu, eta eskerrak eman nahi dizkiegu, era batera edo bestera, inauteriak era egokian garatzeko lanean aritu diren guztiei. «Besteak beste, bereziak izan dira txarangen hotsak».

Zarata gutxiago

Trianguloa plaza inguruan sortzen zen zarata aurre egiteko, udalak bi neurri hartu ditu aurretik. «Horien inguruko balantzea positiboa da. Trianguloan zarata asko gutxitu da, baina hainbat konpartsa txiki San Frantzisko pasealekuan zehar zabaltzen dira. Beraz, udalak, neurriak hartzen jarraituko du».

Gune jendetsuenetatik haratago, zeren plaza inguruan ere kokatu dira

karrozak. «Hainbat gunetan, ordea, ez dira esleitutako tokian kokatu eta desorekak izan dira». Horren inguruan, karroza eta konpartsetako kideekin hitz egingo dutela jakinarazi dute.

Lapurretak eta salaketak

Inauterietan, lau pertsona atxilotu dituzte lapurretekin lotuta: bat taberna batean lapurtzeagatik, beste bat mugikorrak eta diru-zorroak lapurtzeagatik eta bi saltoki batean lapurreta egiten saiatzeagatik. Bestetik, 89 salaketa jarri dira mugikorraren eta diru-zorroaren lapurreteagatik. Guztira, 30 pertsona izan dira identifikatuak.

Osasun arloan, berri, 48 pertsona izan dira artatuak zauriengatik, eta 15 alkohol-intoxikazioagatik. «Hemen jaitsiera nabarmena eman da azken urteetan». Ai Laket-eko teknikarien eta Inmakulada ikastetxeko ikasleen eskuhartzea «positiboki» baloratu da.

Bestalde, udalak irmoki gaitzesten du Zaldunita eguneko goizaldean salatutako sexu-erasoa. Elkertasuna eta babesa adierazten du, indarkeria mota honi aurre egiteko dituen zerbitzuak eta tresnak eskura jarritz.

Garbiketa eta trafikoa

Kale garbiketarako 491.000 litro ur eta 520 litro desinfektagarri usaindun erabili dira. Hondakin biltzaile berezia ere izan da, puntu berrietan edukiontzi gehiago ezarriz. Kaleran 162 metro kubiko hondakin jaso da. Kale garbiketako langileen lana azpimarratu du udalak, baita herritarrek horiekiko izan duten kolaborazioa eta begirunea ere.

Bestetik, tren eta autobusa izan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

dira inauterietako garraiorik erabilienak. «Zerbitzuak ugariak izan dira. Autoz etorri direnek, berri, aparkalekuak erabiltzeko aukera izan dute, eta ez da arazo berezirik egon». Gainera, udalak 12 trafiko laguntzaile kontratatu zituen egunotarako, eta horiei eskerak eman nahi dizkie.

Festen jarraipen osoa

Beste behin, inauterien jarraipen zabala egin du udalak. Ekitaldi gehienek jarraipena egin da, zuzeneko emanaldiak eta udalaren komunikazio kanalean, baita *Tolosako inauteriak* plataforman ere. «Inauterietan egin moduan, herritarrak eta bisitariak, #TolosakoInauteriak traola erabiliz, sare sozialetan edukia elkarbanatzera gonbidatzen ditugu».

Sari banaketa, bihar

Bihar, hilak 9, ezagutuko dira 2019ko karroza eta konpartsa lehiaketako saridunak, 19:00etatik aurrera, Topic zentroko areto nagusian. Aurten, estreinakoz, Berdintasun Sariarekin batera, Bandera Berdinzalea emango zaio karroza parekideenari. Guztira 95 karroza eta konpartsek hartu dute parte. Udalaren esanetan, «idea berri-tzaile bezain gogoangarriak plazaratu dituzte tolosarrek».

Irakurkizunak jasotzeko prest

Hilaren 12an, astearte, inauterien balantzea egiteko bilera irekia egingo dute, kultur etxean.

Batzarra 19:00etan izango da, eta udalak herritarrei bertaratzeko dei egiten die. Horrez gain, bertaratu ezin duenak, *festak@tolosa.eus* helbide elektronikora ere igorri ditzake jaien inguruan dituen iritzi edota iradokizunak.

GUTUNA

EAJk emakume langileen eskubideak erasotzen ditu

Ohikoa duen hipokrisiarekin, EAJ Martxoaren 8ko grebara eta mobilizazioetara batzen saiatzen ari da. Bere afiliatuei eta ordezkariei greba onartzeko askatasuna emateko mezua zabaldu du, helburu argi batekin: apirileko eta maiatzeko hauteskundeetara begira aurpegia garbitu eta borroka feministak duen klaseko eduki antikapitalista desagitea. Baina praktikan, EAJ izan da, hamarkada luzez, Euskal Herriko emakumeon gehiengo, zapalkuntzarik gordinena jasaten dugun langileak, gehien eraso eta kolpatu duena. Noski, eraso horien buruan ere badaude Itsaso Atutxa, Cristina Uriarte, Arantxa Tapia, eta abar. Guk argi dugu: Kanpora EAJ Martxoaren 8tik!

Iaz, EAJk argi esan zuen ez zuela greba babestuko, ez zitzaiolako modurik eraginkorrena iruditzen. Aurten, Itsaso Atutxak honakoa esan du: «EAJ ez da greben alderdi bat, baina mugimendu honetara batzeak are gehiago inplikatzeko gaitu eta agenda politikoa benetako berdintasunaren auzia jar dezake. Nahiz eta nik Martxoaren 8an greba egitea soilik sinbolikoa izan, politika jarrera egokiek sinbolizatzeko lortu behar dugu».

Argi dago patronalarentzat eta bere zerbitzari den eskuinarentzat enbarazu handia direla grebak, greba orokorrak auzi oso konkretua jartzen duela mahai gainean. Langile klaseak, gizartearen %99ak, guztia geratzeko boterea du, miseriara kondenatzen gaituzten %1eko bizkarroien aurrean. EAJk, baina greba zerbait sinboliko bihurtu nahi du aldarrikapen abstrak-

tuak planteatuz eta gezur handi bat txertatuz: emakume guztiak berdinak gabela.

Ez da kasualitatea emakume langileek egin dituzten borroka sindikalak, EAJk sakonean murriztu eta pribatizatu dituen sektore eta zerbitzuetan egin izana. EAJko ordezkariak, izan gizonen edo emakumezkoak, patronalen alboan kokatu dira.

Hainbat ikastetxetan, zuzendari-tzatik, Martxoaren 8an ikasleek greba egiteko hamaika mehatxu eta eragozpen jartzen ari dira. Euskal Herrian hezkuntza inon baino pribatizatuagoa daukagu, eta Eliza katolikoak, bere propaganda atzerakoia, matxista eta homofobia hedatzeko erabiltzen du.

Gainera, EAJk inoiz ez du inolako arazorik eduki moza legea aplikatzeko. Iaz, Emakume Aske eta Borrokalariei eta Ikasle Sindikatuari, beste kolektibo feministak batzuekin batera, isuna ezarri zien Gasteizko Udalak, Martxoaren 8ko grebara deitzen zuten kartelak itsasteagatik. Eusko Jaurlaritzak prostituzioa ere erregulatu nahi du, Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jarduaren Legearen bitartez. Horrela, emakumeen gorputzen esplotazioa basatiena beste edozein negozioren parean jarri nahi du.

Gure borroka iraultzailea eta antikapitalista da. Langile familetako emakume eta gazteok jasaten dugun zapalkuntzak ez du zerikusirik burgesiako emakumeekin. Ez dugu lanuzte edo greba sinbolikorik nahi. Grebarekin eta kaleko borrokarekin politika kapitalistak eraistea lortu behar dugu. Horregatik, langile klaseko gizonen ere dei egiten diegu, greba egin dezaten, eta gaur kalera irten daitezen.

**Tolosaldeko Ezker Iraultzailea.
Emakume Aske eta Borrokalariek.**



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Laida Plazaola, Partaidetza teknikaria. E. MAIZ

HERRITARRAK AKTIBATUZ

Laida Plazaola herritarra da Orendaingo Partaidetza teknikaria; azken egunetan, martxoaren 8ra begira eta euskarazko literatur tailerrarekin ari da lanean.

Eneritz Maiz Etxarri

Orendaingo Udalak azken urteetan herriko pertsona bat kontratatzen du, Partaidetzako teknikari lanak egiteko. Abuztutik, Laida Plazaola ari da lan horretan, eta maiatza bitartean ariko da. Beasainen jaioa izanagatik, Orendainen bizi da azken urteetan.

Zozketa bidez egokitu zaion lanean gustura ari dela dio. Bere lanaz hizketan hasita, lehena, ikastaroak antolatu eta koordinatzea izaten da. Urterokoak izan daitezke aurrera eraman behar direnak, edota berriak martxan jartzeari. Urtero, auzolana bultzatzen dute eta, ikasturte honetako lana, hondakinen etxolak margotzea izan dela gogorarazi du Plazaolak.

Aurtengo berrikuntza, pizgarrien programa izan da. Kontsumo arduratsuen ingurukoa da, hau da, kontsumitzea eta arduraz jokatzeari bultzatu nahi du. Ura, energia, garraioa edota bertako produktuak jorratu dituzte.

Interesgarria izan dela dio: «58 familiatara aurkeztu zen, eta bakoitzak erabaki du zertan parte hartuko duen. Bertako produktuak kontsumitzearena, esaterako, oso ondo baloratua izan da. Herrian dagoeneko ohitura bazeen bertakoa kontsumitzeko, eta orain, saritu egiten da. Ur txorrotak ere 35 familiatan jarri ditugu eta, energiaren kasuan, Goienerrekin egin dugu kanpaina: esna digute, Orendain dela, batezbeste, bazkide gehien dituen herria», dio. Aldiz, zailena, garraioarena dela kontatu du.

Kontsumoarekin lotuta, «panel batzuk jarri ditugu udaletxeko arkupeetan kontsumitzearen kontzientzia maila pizteko». Garai batean, gai horien inguruan zein erabilera egiten zuten berreskuratu nahi izan dute. «Urte gutxian asko aldatu da eta, adinekoekin elkartu gara beraiek, esaterako, arropa nola garbitzen zuten edota uraren bila iturrira nola joan behar izaten zuten kontatzeko». Ura asko baloratzen zutela nabarmendu du, «oso gai interesgarriak atera dira, eta nik oso gustura egin dudana zerbait izan da. Eta askotan ez gara konturatzeko zentzuzko informazio galtzen ari garen».

Laida Plazaolak elkarriketak egin dizkie herriko adinekoei, eta gogora ekarri du haiek nola esaten zioten: «Guk ezin dugu sinetsi nola bizi ginen lehen, eta zuek nola sinistuko duzue bada».

Martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

“Berdintasunaren alde lanean”



Denbora gutxian kontsumo ere-
duak nola aldatu diren ikusteko hain-
bat panel jartzen joan dira, eta orain
erakusketa jarriko dute osatu dituzten
panel guztiekin.

Herritarrekin lanean

Herritarrekin lan egiteaz galdetuta,
«beldurra» aipatu du: «Urte askoan
egon naiz nire lan gustukotik aldendu-
ta, eta nik neure buruari beste aukera
bat eman nahi nion. Nire beldurrak ni-
tuen, baina ilusio askorekin sartu nin-
tzen, eta gauza asko egin nahi nituen».

Herrian egoteak, ordea, alde on eta
txarrak dituela esan du: «Bide asko
eginak daude, eta jendeak ezagutzen
zaitu, eta konfiantzako jendea alda-
menean daukazu. Eta, alde txarren ar-
tean, askotan, udaleko langilearen
rola hartu beharra daukazu, eta ez he-
rritarrena. Eta, batzuetan, konfiantza-
ko jendearekin, zaila izaten da distan-
tzia hori hartzea eta markatzea, baina
uste dut ondo daramadala, eta ez zait
zaila egin», aitortu du.

Jarduera puntualak egiten dituzte,
eta jendeak oso barneratuta dituela
adierazi du, eta herritarrek parte har-
tzen dutela: auzolana, festak, talo ja-
tea,... «Ikasturtea hastearekin, ordea,
pixkana jendea nekatzen joaten da,
eta horrek eragina du parte hartzean
ere». Urtea bukatzerako jendea bere
egunerokotasunean sartzen dela na-
baritu du, eta gehiago kostatzen zaiela
egunerokotasunetik ateratzea.

«Nire esperientziatik, gauzak den-
borarekin egiten direnean, eta bana-
kako lanketa egiten bada, asko lagun-
tzen du, eta herritarrek parte hartzen
dute. Oso deialdi orokorra bada, jen-

deak errazago huts egiten du. Gertuta-
sunetik bultza egin behar da».

Martxoaren 8ari ere gogor heldu
diote Orendainen. Aurrez aipatu mo-
duan, hainbat gairen inguruko elkar-
rizketak egin dizkiete adinekoei. Hori
dela eta, bihar, eskertza omenaldia
egingo diete. «Denbora eskaintzeaga-
tik, eta jakintza hori guztia herriarekin
konpartitzeagatik». Eta arratsaldera-
ko mahai ingurua ere antolatu dute,
kafe baten bueltan: emakumea eta ba-
serria izango dituzte hizpide. Emaku-
me baserritar moduan dituzten bizi-
penak konpartituko dituzte, elikadura
burujabetzaren inguruan ere hitz egi-
nez. (Martxoaren 9ko egitarau osoa
26-27 orrialdean).

Euskarazko literatur tailerra

Euskaraldiaren bueltan ateratako
ideietatik tiraka, jarri berri dute mar-
txan, euskarazko literatur tailerra.
«Panel batzuk jarri genituen euskarak
dituen indargune eta ahulguneak
identifikatzeko. «Bertan, euskaraz
kontsumitzerakoan, irakurtzeko, tele-
bista ikusteko, musika entzuteko,...

gabeziak ditugula atera zen, eta indar-
tu egin behar ditugula», azaldu du Pla-
zaolak. Eta aukeren artean atera zi-
tzaien literatur tailerrarena. Hamar
pertsonako talde bat dago osatuta, bai-
na herri guztiari irekia dela nabar-
mendu du teknikariak. Maialen Akizu
da gidari laguna, eta irakurritakoa
hausnartzen laguntzen diete, gai eta
ikuspegi ezberdinak mahai gainera-
tuz. Irakurri beharreko liburuen auke-
raketan ere laguntzen diete, gomen-
dioak emanaz.

Datorren saioa martxoaren 26an
izango da, 14:30etik 15:30era, eta ira-
kurri beharreko liburua Danele Sarriu-
garteren *Erraiak* izango da. Ekaina bi-
tarteetan tailerrarekin jarraituko dute.

Tailerrarekin batera, liburutegien
arteko mailegutza zerbitzua jarri dute
martxan: «Modu honetara, Orendain-
go edozein herritarrek Euskal Autono-
mia Erkidegoko liburutegietan dau-
den liburuak eskatu ditzake herrian
bertan».

Horrez gain, etxeko txikienei zu-
zenduta, haurrentzako euskal zinema
ere martxan jarri dute.



Euskarazko literatur tailerreko saioan, Maialen Akizurekin. ATARIA



asteasuko udala

Asteasuko Udalak M8ko grebarekin bat egiten du



Ramon Olasagasti, Aitor Elduaien eta Olatz Peon, atzo, Mendi Tourren aurkezpenean. A. IMAZ

22

Mendi Filmeko onenak Leidorren

Martxoaren 11tik 13ra sei film, 'Everest' liburuaren erakusketa eta film laburren lehiaketa ikusi ahal izango dira Tolosan.

Asier Imaz

Bilbao Mendi Film nazioarteko mendiko zinemaldiko lan onenak herri eta hiri desberdinetara eramatea helburu duen Mendi Tourrek datorren astelehenean geldialdia egingo du Tolosan. Hain juxtu, martxoaren 11, 12 eta 13an hartuko du ekimena Leidor aretoak, eta egun bakoi-tzeko bi film emango dituzte.

20 herritara iristen den ekimena da Mendi Tour, eta bederatzigarrenez egingo da Tolosan. Tolosako Udalak eta Tolosa Gasak babesten dute aurtene, eta Zineuskadiren laguntza du. Aitor Elduaienek aurkezpen ekitaldian azaldukoaren arabera, «Leidorren oso giro berezia sortzen da egun horietan». Pasa den urtean, esaterako, 1.604 ikusle izan ziren. Saiok

19:30ean hasiko dira, eta sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte Leidorreko lehiatilan. Hiru egunetarako bonoa ere jarri dute aurtene lehendabizikoz eskuragarri, 12 euroan.

Mendi Film jaialdian 2018ko epai-mahaiaren saria jasotako *The Dawn Wall* filma edota, Kirol eta Abentura film onena izendatutako *The weight of water* izango dira ikusgai Leidorren, eta *Wallmapu*, *The Search for the wooo*, *This mountain life* eta *Liv along the way* filmek osatuko dute hiru egunetarako karteldegia. Horietan guztietan, horma handietako eskalada, mendiko eskia, alpinismoa, kayaka, surfa edota psikobloka jorratzen dituzte. «Emozio bizietarako irudi eta istorioak ekarriko dituz, beraz, bste behin, Mendi Tourrak».

Pelikula guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, euskarazko eta gaztelaniazko azpidatziekin lagunduta, eta zeinu hizkuntza interpretazioa ere eskainiko dute proiektazioaren aurkezpenean.

Mendi Film Laburren Lehiaketa

Tolosako Mendi Tourren Tolosako Udala mendi film laburren lehiaketa-ko irabazleak aurkeztuko direla ere iragarri du Olatz Peon Tolosako alka-teak ekimenaren aurkezpenean. Aste-artean, hilaren 12an, egingo dute sari banaketa. *Save the Karnali* izan da lehiaketako irabazlea, eta beraz, 600 euroko sari nagusia jasoko du Mikel Sarasola donostiarrak zuzendu duen lanak. Horrez gain, Tolosaldeko egile-tza duen film labur onenaren saria, 400 euro, Andoni Arregi eta Imanol Amundarain tolosarrentzat izango da, *Tsaranoro. Madagaskar. Eskalatzen munduan zehar* lanagatik.

Ramon Olasagastiren komikiaren erakusketa

Everest: herri oso bat gailurrean komiki liburuaren inguruko erakusketa antolatu dute Mendi Tourren barruan. Leidorreko harreraren jarriko dute erakusketa, eta komikia erosteko aukera ere egongo da. 1974an eta, batez ere, 1980an Everestera joan ziren euskal espedizioak dira komikiaren ardatz. Gertaera historiko haren kontaketa egin du Ramon Olasagastik, Cesar Llaguno bilbotarraren marrazkiez lagundurik. Komikiaren lanketa prozesua erakusten du erakusketak.

Behar Zana, bost finaletatik lau

Larunbatean Irurako trinketea Gipuzkoako Txapelketako finalak jokatu dira, eskuz eta xarean.

Erredakzioa

Villabonako Behar Zana pilota elkarteko kideek lau final jokatu dituzte larunbatean. Irurako trinketea guztira bost daude iragarrita, eta ondorioz, billabonatarak final bakarra huts egingo dute.

Lehen Gipuzkoako Txapelketa 11:00etan hasiko da, kadeteen arteko partidarekin. Behar Zanako Koldo Jauregi eta Aimar Iraola izango dira bertan. Finala Behar Zanakoen artekoa izan zitekeen, finalerdietan 40-37 galdu izan ez balute Juanena eta Aburuza bikoteak, Astigarragako Mundarroko Mugika-Lizeagaren aurka. Hala eta guztiz ere, horrek erakusten du Behar Zanako kadeteen maila. Arratsaldean, berriz, 16:00etan hasita hiru final jokatu dira. Eskuz binaka 1. eta 2. mailako nagusi mailako finalak jokatu dira; jarraian, xare nagusi mailakoak.

Eskuz binaka, 2. mailako finalaren

txanda izango da. Iñaki Lizaso eta Jon Urbietia sailkatu dira txapelaren lehia horretarako, eta ondorioz, lehen mailako txartela lortzeko aukera izango dute. Final gogorra izango



Irurako trinketea izango dira finalak. R.C.

dute EPLE taldeko Taberna-Aranbururen aurka.

Ondoren 1. mailako finalak jokatu dira. Eneko Maiz eta Gurutzealde Behar Zanako ordezkariak Loitegi eta Esnaola Urnietakoak izango dituzte aurkari. Partida polita espero da.

Eta arratsaldeko azken partidari, xarez, Behar Zana ordezkatzuz Joxi Lopetegi eta Moncadak jokatu dute Irurako Ametsa taldeko Apeztegia-Sainzen aurka.

Infantil mailako xare txapelketa

Bestalde, Ametsa xare eskolako gartetxoen mailako txapelketa ere antolatuko dute irurarrak.

Ametsako infantilek Gipuzkoako Xare Txapelketako partidak jokatu dituzte asteburuan. Gaur 18:15ean hiru partida izango dira Irurako Ametsa trinketea: Ametsa 3-Ametsa 2; Beotibar 2-Ametsa 1; eta Eñaut-Nora Oier-Xuban bikotearen kontra.

Igandean, aldez, 11:45ean hasiko da xare jaialdia Iruran. Hauek izango dira partidak: Nahia-Aimar Ekhi-Aitorren kontra; Ametsa 1 Ametsa 3ren aurka; eta Beotibar 1 Ametsa 2ren artekoa.

Harmailetatik

Gora, gora, gora...

Ze politikak diren Tolosako neskatxak Erandiora joan eta partida irabazi. Jeiki goiz kantaren soina eta zabaldu gure umorea Bizkaia aldean.

Jeiki jeiki inauteriak beti, alaitzen gaitu guztiz, gehiago irabazi ondoren. Mugi mugi gorputz hori gogotsu abestuz bueltan autobusean Tolosarantz. Ai ene nik ere nahi nuke, ai ene zuk nahi baze-nuke Segundara igo.

Somos de aqui somos de alli somos del Tolosa eta gerra emango



ANTXON IGLESIAS
TOLOSA CF
EUSKAL LIGA

ederrean doa.

Larunbatean, Usabalen 17:30ean, Arratia aurkari, liderra bigarrenaren aurka, 3 puntura dugu, partida honen emaitzak etorkizuna bideratuko du. Tolosa CFko bazkide eta ja-

dugu. El arco iris a lo mejor nunca le falta el buen humor eta Maddik gola, garaipena etxera. Oi mutiko kanela Tolosako itsasontzi bat dago zuk noiz hartuko, proa begira dago eta oihalak astinduz abiadura

rraitzaile guztiak Usabalen egon behar dugu gure neskak animatzen.

Aupa Tolosa trakatra!

BILLABONA FUTBOL KIROEL ELKARTEA	
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA	
Larunbata, 9 - 10:00	Infantil 1. maila
BILLABONA FKE - AIZKORRI F.T.	
Larunbata, 9 - 12:00	Kadete 1. maila
BILLABONA FKE "B" - LAZKAO K.E.	
Larunbata, 9 - 15:30	Kadete 1. maila
BILLABONA FKE "A" - TRINTXERPE C.D. "A"	
Igandea, 9 - 17:30	Ohorezko jubeni maila
BILLABONA FKE - ILINTXA S.D.	
Igandea, 10 - 11:00	Preferente maila
BILLABONA FKE - TRINTXERPE C.D.	

Emakumeen autoesplorazioaz

Zabalduta dagoen mito bat baino ez da emakumeei ez zaiela sexua gizonei bezainbeste gustatzen. Jon Imanol Etxabe sexologoak dioen bezala, erotikak eta desirak toki bera dute gizonengan zein emakumeengan eta azken hauek ez daukate, izatez, plazererako gaitasun handiagorik.

Emakumeak bere sexualitatearekin erlazio zaila izan du, ordea, historian zehar. Ezjakintasun handia dago eta gaizki ikusia izan da. Emakumeek zailtasunak izan dituzte plazer eta desira lotsarik gabe bizitzeko, baita plazeraren bila joateko eta desira libreki adierazteko ere. Gizartea, emakumeak erreproduktzioarako gaitasun bereziak zituela pentsatzetik, gizonaren sexualitatea gailentzera igaro da. Matur batetik bestera, hain zuzen ere. «Emakumei beti irakatsi izan zaie plazera sentitzen zutela gizonetzkoarengatik, eta ez beraien kabuz plazera sentitzeko gai zirelako», dio Ibai Luquek. Etxabek azaldu du terapiara joaten zaion jendearen ehuneko handi bat mutilak plazerik ematen ez diolako joaten dela, eta ez beraien kabuz plazera sentitzeko gai ez direlako. Izan ere, garrantzitsua da, lehenengo, bakoitzak bere kabuz plazera edukitzen ikastea, baina ez da irakatsi hori egiten. «Txikitatik ixten zaie, umeei, bakoitzak bere gorputza esploratzeko, ukitzeko eta plazera sentitzeko aukera», dio Luquek.

Orain arte, emakumei ez zaio galdetu eta ez zaio aukerarik eman bere gorputza ezagutzeko. Etxaberen iritziz, erlijioak zerikusi handia du horretan, erotikarik ez izatea garbitasunarekin lotzen duelako. Ondorengotza ekartzen ez zuen edozein praktika kentzea erabaki zuten: masturbazioa, ipurdi bidezko koitoa, ... Debeku horrek aurrera jarraitu du, baina gizonari baimen sozial batzuk eman zaizkio testosterona edukitzeagatik. Luquek dioenez, gizon sentitzen diren pertsonak beraien zirkuluetan askeago izan dira, betidanik, masturbazioari eta sexuari dagokionez. «Emakumei esan zaie erotikaren kontua ez doala beraiekin, testosterona falta zaiola», gaineratu du Etxabek.

Emakumeak, erreprimitzeari dagokionean, aipagarria izan zen frankismo garaia. Emakume ona izateko hainbat betebeharrak zeuden, eta horren ondorioak oraindik bista-koak dira: sumisioa, amatasuna, zaintza, senarra pozik mantendu beharra... «Nik uste dut oraingo gazteek pixka bat kendu dituztela horiek, baina, hala ere, dezente barneratuta daude», dio Luquek. «Gauza asko modu inkontzientean egiten dira. Izan zaitezke oso feminista, eta konturatu gabe horrelako konturen batean erori», gaineratu du Etxabek.

Garai haietan, gainera, emakumeak bideratuta zeuden ikasketak ez egitera. Beraz, bizirauteko senargai bat aurkitu beharra zeukaten. Gizonari dena eman behar zioten eta

bere zerbitzura egon behar zuten. Gainera, emakumeek guztia jasan behar zuten eta pasiboak izan behar zuten, zintzoak eta esanekoak. «Nortasun falta edukitzea bezala da. Azkenean, otzantasun horretan beraien identitatea galtzea bezala, zerbait neutralizatua izatea, trabarik egiten ez duena», azaldu du Etxabek. Senarrari sostengua eman behar zioten, eta hortik aurrera ez zeukaten eskubiderik. Emakume horiek ere, ordea, beraien identitatea zeukaten, baina denbora guztian erreprimitu egin behar zuten. «Nonbaitetik atera beharra zeukaten hori», dio Etxabek. Orduan, eskola bat sortu zen, esanez, larrutan ondo egitearekin dena konpondu zitekeela, eta *kontsoladorearen* figura sortu zen. Sarketa objektu bat zen, emakumea hobeto sentiarazten zuena eta *kontsolatzen* zuena. Etxabek dioenez, hortik sortu zen emakumeek behar bat zeukatenaren ideia, ez autoesplorazioagatik edo erotika disfrutatzeagatik, baizik eta gaixoak gaizki zeudelako. «Beraien ideia zen, pasatuko zitzaie txorakeria hori guztia, behin orgasmora iristen zirenean», gaineratu du.

Arazoaren erroa haurtzaroan zegoen, ordea. Izan ere, hezkuntzatik zetorren emakumearen zapalkuntza. «Neska gazte batek purua izan behar zuen, eta purutasun hori galtzeko arriskuez hitz egiten zen baita bekatzuez ere». Gorputzari buruz hitz egiterakoan ere arriskuak aipatzen ziren, eta ezjakintasuna zabaltzen zen. «Kristau eskoletan gimnasia klaseak zituztenean, aldageletan erabat saihesten zuten elkar biluzik ikustea eta azpitik galtza motzak jantziarazten zizkieten», azaldu du Etxabek.

Aspaldiko kontuak diruditen arren, atzo goizekoak dira, eta egoera horrek ulertarazten du gerora ere, emakumeek jasan izan duten zapalkuntza. «Zoritzarrez, onartu egin behar izan dute, ez dutelako beste aukerarik izan. Belaunaldi askok ezagutu duen bakarra hori izan da», dio Etxabek.

Gauzak aldatzen ari dira pixkana, eta, gaur egun, badaukate aukera beraien burua hobeto ezagutzeko eta erotika beste modu batera bizitzeko. «Bereziki, datozen belaunaldietan, neskek arazorik gabe esaten dute masturbatzen direla eta maiztasun handiarekin. Zentzu horretan, oso aske datoz». Horrek aurreko belaunaldiekin talka egin dezake kasu batzuetan, ordea. Adibide bidez azaldu du Etxabek: «Imagina dezakegu neska batek neska laguna duela, eta amak bitartekari lana egin dezake. Sostengua emango dio, baina agian eskatuko dio amonari ez kontatzeko. Amonak agian ez du ulertuko bikoteek ez daukatela derrigorrez gizon eta emakumez osatuta egon beharrik, baina gerta daiteke ulertzea ere».

Jende heldua ere ideiak aldatzen ari da. «Hirugarren adin horretan ere bizitza berri bat bizi daiteke: tupper sex batera joan daitezke, antzerki bat ikustera gay baten ingu-



**JON IMANOL
ETXABE
SEXOLOGOA**



ruan...Munduratzeko prozesu bat da», azaldu du Etxabek. Munduratzeko prozesu hori jende heldu asko orain ari da bizitzen. Alde batetik, denbora libre asko dute eta ondo daukete osasunez. Beste aldetik, Internetek ere laguntzen du: «Eskura dagoen zerbait da eta milioika gauza aurki ditzakegu. Buruak irekitzeko baliagarria da».

Beraz, egoera hobetzen doan arren, beste arazo batzuk gaineratu zaizkie emakumeei. Lehen emakumeei debekatuak jartzen zitzaizkien bezala, orain presioa sartzen zaie. «Zeure burua ezagutu gabe mundu erotikora askatzen zaituzte eta, gainera, emakume aske izateko eta erotikaz libre disfrutatzekeko presioa dago, orain arte oinarria hartzeko aukerarik egon ez denean», azaldu du Etxabek.

Horri aurre egiteko eta sexualitatea askatasunez bizitzeko hainbat gomendio eman ditu Etxabek. Autoesplorazioaren bizipena oso kontu polita izatera irits daitekeela, norberak bere buruarekin konexio bat ezarri eta aurkikuntza bat egin dezakeelako. «Genitalak beti zikintasunarekin lotu izan dira eta ez gaude oso ohituta gure genitalak ukitzera eta beraien egoera zein den jakitera». Etxabek dioenez, emakumeen gehiengoak txiza egindakoan genitalak garbitzen ditu eta hilerokoa daukatenean tanpoia janzen du, baina besterik ez. Horrela, ahalik eta kontaktu gutxien

edukitzen saiatzen dira emakumeak eta, gainera, guztia paperarekin egiten da. Hilerokoan koparen erabilerak lagun dezake, norberak bere genitalekin erlazioa berreskuratzen. Silikonazko kopatxo bat izaten da; hilerokoa edukitzean baginan sartzen da, odola hor geratzen da pilatuta eta gero askatu eta komunetik bota daiteke. «Horrek behartzen zaitu zure baginarekin kontaktuan egotera: behatzak sartu behar dituzu ateratzerakoan, zure hilerokoa ikusi behar duzu...», gaineratu du sexologoak. Hilerokoari buruz gehiago jakitea ere ekartzen du, ikus daitekeelako nolakoa den, koagulatua al dagoen, zein kolore duen... Etxabek azaldu duenez, hori egiteak soilik, nahiz eta jolasean ez ibili, lagundu egiten du. Sexua hilerokoarekin egitea ere ez dela txarra, zikina edo okerragoa azaldu du Luquek: «Erotika bera da, baina beste egoera batean». Etxabek dio, badaudela emakumeak «goseak» hilerokoan zehar ere irauten dienak. «Hilerokoak eman dezakeen arazo bakarra honakoa da: gizon eta emakumeen arteko sarketa batean, hilerokoaren testurak zaildu egin dezakeela kondoiaren erabilera, eta hautsi egin dezakeela. Baina ez dago beste arazorik».

Hilerokoa bezala, fluxua ere interesgarria da, sexologoaren iritziz. Baginako mukosetan aurki daiteke eta informazio asko ematen du emakumearen inguruan: bere maila hormonalari buruz, tenperaturari buruz, flora baginalaren inguruan, ... Fluxua baliagarria da haurdunaldia bilatzera-ko garaian ere. Kolorea apuntatzen da, kantitatea, likatasuna...Eta, horiek kontuan hartuta, jakin daiteke emakume bat noiz dagoen prestago ume bat edukitzeko. «Egon daiteke jendea fluxua hartuko duena, dastatuko duena, usainduko duena... baina ez da beharrezkoa. Autoesplorazioaren interesgarria da, norberak erabakitzen duela noraino joan», dio Etxabek. Oso mitikoa izan daitekeen arren, gomendatzen du ispilu bat hartu, ohearen ertzean jarri eta genitaleki begiratzea. «Horrek izugarri laguntzen du eta kontzientzia handia ematen dizu. Izan ere, neska batzuek ez daukate garbi non dauden gauzak». Etxabek azaldu duenez, belaunaldi berriek asko egin dute hori, eta ukitzen konturatu dira klitoria interesgarria dela, plazera ematen duela. Aurrera goaz, beraz. Inguruneako eta Natur Zientzietako liburuetan, esaterako, orain arte ez da agertu klitoria. Orain, berriz, esaten ari dira klitoria hor dagoela eta horren inguruan ere informatu behar dela.

«Autoesplorazioak, azken finean, mundu bat irekitzen dizu zeure burua ezagutzeko, eta zeure buruaz gozatzeko, banaka zein partekatuta», baieztatu du Etxabek. Horretarako, ezinbestekoa da norberak bere buruaren ezagutza egoki bat izatea. «Zergatik ez jakin zer dugun hor, nola dagoen eta zer gustatzen zaigun hor egitea. Askotan, nik uste dut hortxe dagoela akatsa», dio Luquek.

Jon Imanol Etxabek gaineratu du, nahiko joera daukagula, daukagunarekin konformatzeko, beraz, ez badugu lor dezakeguna edo gerta daitekeena ezagutzen, konfort eremu horretan geratzea oso erraza dela. Beraz, ikasi, esploratu eta gozatzeko tartea badago oraindik.

Agenda

MARTXOAK 8 GREBA FEMINISTA

ABALTZISKETA

14:00. Urteroko bazkaria, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, ostatuan.

AIZTONDO

00:00. Egunaren hasiera: Zizurkil–Villabonako oinezkoen zubian; Larraulen pintxo pote zaratzua; beste herrietan ere hasiera berezia.

08:30. Kotxe karabana. Ibilbidea: Lamitegiko aparkalekua, Olentzoko bidegurutzetik Zizurkil herrigunera; Aduna; Zizurkilgo Joxe Arregi plaza; Zubimuxu zubia; Txermin; kiroldegia; Larreako biribilgunea; Gasolindegia

09:45. Irurako sarreran

10:30. Tolosako Usabalen

12:00. Mobilizazioak.

Villabona – Zizurkil manifestazioa Malkar plazatik

Asteasun elkarretaratzea

14:00. Bazkaria, Zizurkillen, Joxe Arregi plazan.

19:00. Donostiako manifestaziorako deia. Egiako zutabeen joango dira, Antiguotik abiatuko den manifestaziora.

22:30. Akelarrea Malkar plazan.

ALTZO

09:30. Altzoko frontoi atzeko aparkalekuan elkartuko dira. Ondoren, kotxe karabanaz Tolosara joateko.

12:00. Manifestazioa Tolosan. Ondoren, bazkaria.

19:00. Manifestazioak Tolosan eta Donostian.

ASTEASU

08:00. Lamiategin Aiztondoko kotxe karabanaren parte hartzeko elkartuko dira.

08:30. Kotxe karabana Aiztondotik Tolosaldera abiatuko da.

12:00. Herriko kultur etxe aurrean ekitaldia.

ANOETA

08:45. Kalejira plazatik ikastolara.

10:00. Kotxe karabana Tolosara.

14:00. Bazkaria. Ondoren dinamikak eta tertulia.

19:00. Manifestazioa.

21:00. Afaria.

BELAUNTZA

20:30. Emakumeen afaria Benta jatetxean.

BERASTEGI

09:30. Kotxe karabanaren irteera, plazatik Tolosako Usabal kiroldegira.

Ondoren. Tolosako eskualdeko manifestaziora deia.

18:00. Elkarretaratze musikatua plazan.

21:00. Afaria erabileraren anitzeko gelan. Jarraian, DJ Xoko.

BIDANIA-GOITATZ

20:00. Elkarretaratze zaratzua Bidaniako frontoi aurrean.

21:00. Afaria bertsolariekin, Saiaz elkartean.

IBARRA

09:30. Kotxe karabana Berastegitik (09:15ean Ibarako plazan egin dute hitzordua).

11:30. Jende–katea plazatik Tolosara, eskualdeko manifestaziora joateko.

19:00. Manifestazioa Ibarren, plazatik.

20:30. Kantu afaria Xeplan.

IKAZTEGIETA

08:50. Kotxe karabana udaletxe paretik abiatuta. Herria zeharkatu eta Altxorako bidea egingo da, Alegialdeko herriekin elkartuz Tolosara joateko, eta Usabalen elkartuko gara eskualdeko auto guztiekin.

12:00. Manifestazioa Tolosan.

17:00. Ikaztegietak plazan pankarta pintatzeko elkartuko dira, eta bukatu ostean zintzilikatu, eta kazerolada batekin zarata aterako dute.

Ondoren. Afari merienda plazan, jatekoa norberak eramanda, eta musikaz lagunduta.

ORENDAIN

Greba feministara batuko dira. Herritar batzuk antolatuko egingo dira, Tolosan antolatutako ekintzetara gehitzeko.

TOLOSA

00:00. Greba feministaren hasiera irudikatuzko, batukadarekin martxa Tolosako Triangulotik. Aroztegieta kaletik barrena Euskal Herria plazara joango dira, eta handik Plaza Berrira. Bertan amaituko dute. Beltzez jantzita eta osagarri moreak soinean bertaratzea deitu dituzte emakumeak.

* Oargi elkartean, gizonak kudeatutako zaintza gunea. 12:00etatik 15:00etara herri

jangela eta, ondoren, jolasak eta denbora pasak.

10:45. Kotxe karabanak elkartuko dira Usabalen, Tolosari buelta bat emateko. Hiru azpieskualdetatik abiatuko dira aurrez (Aiztondo–Anoetaletatik, Ibaraldeatik eta Alegialdeatik).

12:00. Eskualdeko manifestazioa, Tolosako Trianguloa plazatik. Ibilbidea: Trianguloa, Korreo kalea, Gorriti plaza, Rondilla kalea, San Frantzisko pasealekua, Foruen etorbidea, Nafarroa etorbidea, Zumalakarregi pasealekua, Trianguloa plaza.

* Ibaratik Tolosara giza–katea egingo dute, manifestazioaren aurretik.

* Aiztondo bailaran azpieskualdeko mobilizazioa egingo dute.

14:00. Bazkari autogestionatua Zerkausian.

18:00. Sabel dantza emanaldia Tolosako Trianguloa plazan.

18:30. Clown saioa Trianguloa plazan.

19:00. Mobilizazioa Trianguloa plazatik abiatuta, Alde Zaharrean barrena.

Ondoren. Afari–merienda autogestionatua Zerkausian.

23:59. Greba feministaren amaiera.

OSTIRALA MARTXOAK 8

AMEZKETA

19:00. Antzerkia, kultur etxeako aretoan, M8aren harira: *Peter Punk*.

TOLOSA

22:00. Kontzertua Box.a–n, Peico taldearen eskutik.

LARUNBATA MARTXOAK 9

ALKIZA

17:00. Mural morea egingo dute, auzolanean, M8aren harira.

19:00. Bertso poteoa Oihana Iguaran eta Maialen Akizu bertsolarien eskutik.

20:30. Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, afaria ostatuan.

AMASA-VILLABONA

11:00. Berdura plazan, Sorgina Txirulina ipuin kontalaria, *Emakume paregabeak* eta

berdintasuna ipuina.

12:00. Amasa-Villabonak aro demokratikoan eduki zituen lehen bi zinegotzi emakumei omenaldia udal batzar aretoan.

AMEZKETA

14:00. Ugarten, emakumeen bazkaria elkartean.

ASTEASU

12:30. Herriko kale eta tabernetan zehar, trikiti kalejira-poteoa egingo da.

14:00. Asteasuko emakume guztien bazkaria Iturri Ondo jatetxean. Ondoren musika izango da.

LARRAUL

14:00. Bazkaria Ostatuan.

18:30. Sexijentziak antzeziana, Bazen Behin Clown taldearen eskutik, balio anitzeko gelan.

TOLOSA

11:30. Emakumeak eta kirolariak elkarriketa kolektiboa, TAKen egoitzan.

19:00. 2019ko Tolosako inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketako sari banaketa egingo dute, Topic zentroko aretoan.

ZIZURKIL

XXVI. TXAPELEGUNA

16:00. Txapeldunen mus lehia zentroan.

17:30. Bukalai dantza taldearen emanaldia Intxaur frontoian.

19:00. Emakumeen arteko herri kirol saioa Zimiterioan.

21:00. Txapeldunen afaria Plaza Etxeberrin.

Afalostean. Xabier Pellejero iazko txapeldunak jarriko dio txapela Alatzne Etxaburua. Afalostean bertsoak.

IGANDEA MARTXOAK 10

AMASA-VILLABONA

11:00. Gurea antzokian planetarioa egongo da, martxoaren 12ra bitarte, Aste klima Euskadiko Klima Aldaketaren lehenengo astearen barruan

19:30. Gurea zineman, *Erlauntza* antzerkia

ASTEASU

09:00. Lilatoira joateko autobusa aterako

da geltokitik.

18:30. Erradikalak gara emanaldia, kultur etxean, Ane Labakaren eta Beatriz Egizabalen eskutik.

BERASTEGI

17:00. Ipuin kontatzea, erabilera anitzeko gelan, Ines Bengoarekin: *Zer daramagu emakumeok poltsoan?*

IBARRA

09:00. Lilatoira autobusa, kultur etxe atzetik, 09:00etan. Itzulera 18:00etan izango da.

IRURA

13:00. Anakruxa musika taldearen emanaldia.

14:30. Bazkaria Trinketean.

TOLOSA

PIÑATA IGANDEA

16:30. Poca-Tripa txaranga lurreamendi Egoitzara joango da.

16:30. Zezen plazan xexen festa Kalean

ZINEMA

ASTERIX: EDABE MAGIKOAREN SEKRETUA

Igandea, 17:00.

Leidor aretoa, Tolosa.



LA CLASE DE PIANO

Igandea, 19:30.

Leidor aretoa, Tolosa.



THE OLD MAN AND THE GUN

Igandea, 22:00.

Leidor aretoa, Tolosa.



LA FAVORITA

Larunbata, 19:30 / 22:00

Astelehena, 21:00

**Gurea antzokia,
Amasa-Villabona.**



txarangak alaituta.

Ondoren. Kalejira.

ASTELEHENA MARTXOAK 11

ALEGIA

16:00. Haurren dantza tailerra, kultur etxean, HH 3 eta 4. mailetako haurrentzako.

ANOETA

19:00. Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans 16. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen jaialdiko emanaldi aukeraketa.

TOLOSA

19:00. Mendi Tour zinema jaialdiko lehen saioa, Leidor aretoan.

ZIZURKIL

16:45. Pedro Mari Otañon *Ausarten kluba* ipuinaren inguruko solasaldia.

ERAKUSKETAK

MARIA ALTUNA

Amasa-Villabona. Kaori faktorian ikusgai izango da erakusketa

SANINAZIO AUZOA, 50 URTE IRUDITAN

Ibarra. Bizi-Nahi elkarte, Ibarra.

SAGARARTE

Zizurkil. Plazida Otaño Liburutegian, erakusketa eta artea dastatzeko aukera.

RAKETISTEN IBILBIDEA

Tolosa. Asteartean zabalduko dute, martxoaren 12an, Aranburu jauregian.



Ar-teskundeak



JEXUXMARI IRAZU

*Zortzia beti izan da zortzi
nahiz hamalau izan miran
Martxoak berriz apirila hor,
ta maiatza ere jiran.
Ordezkaritzan parekidetza
zeinen more ageri dan
ta hautagaitza burueri so
betikoa azken kriban.
Zalantza gutxi
hauteskundeak
edo ar-teskundeak diran*



Doinua


Itsasoari begira

Greban nago.



MIREIA GARAIBURU
HEZITZAILEA

Martxoak 8. Greban nago.
Hurren arte.



Mundua gelditu zait

Laugarren aldia da testu hau idazteari ekiten diodala. Ez da zer idatzi ez dakidalako; esan beharreko hori nola adierazi ez jakiteak gelditzen nau. Martxoaren 8a da gaur, eta bai, mundua gelditu da. Kaleak oihartzun morez josi dira, bizitza erdigunera ekartzeko aldarria defendatuz. Gainera, betiko horiek deseroso sentitzea lortu da. Pertsonalki, greba honek eztabaida eta autokritikarako eremu zabal bat eskaini dit, ondorio garbi batera iritsiz: gaur mundua gelditu zait.



IÑIGO IRURZUN
IRAKASLEA

Ama eta arreba izan ditut, azken 11 urteetan, jokabide eredu eta ardatz. Familia tradizioaletik kanpo dagoen eredu batean hezita ere, gure arteko zaintza edo eguneroko lan kargaren gehiengoa beraiek eraman dute aurrera. Nire ahalegina ezin da, inola ere

euren ekite jarraituarekin konparatu.

Nahiz eta aspaldian konturatuta nengibilen zaintza eta, oro har, familia, espazio komunean antolatzea beharrezkoa dela, beraien plantoak, oraindik, nire egunerokoa gelditzea dakar. Gaurkoa bezalako egunetan, beraz, mundua gelditzen zait.

Autokritikak soilik ez, zalantzek eta eztabaidek ere markatu dute, egun honetara iritsi arteko ibilbidea. Inoiz baino gehiago aritu gara gaiari buruz hizketan, askotan ezjakintasunagatik deseroso

sentituz. Eztabaida horietako askok pentsatzen dudana indartu eta zalantzan jarri dute, aldi berean, ikasketa prozesua gorabeheraz apainduz. Munduak gelditzea lortu edo ez, prozesu hau izango da aldaketara eramango gaituena, inolako zalantzarik gabe.

Inoiz baino gehiago aritu gara gaiari buruz hizketan, askotan ezjakintasunagatik deseroso sentituz (...)
Munduak gelditzea lortu edo ez, prozesu hau izango da aldaketara eramango gaituena, inolako zalantzarik gabe

EGURALDIA



GAUR

Giro motelarekin hasiko dugu eguna eta kosta egingo zaio altxatzea. Arratsaldearen erdialderarte hodeiak izango dira eta hodei hauek euria utziko dute. Goizean zaparradak sarriago eta mardulago. Eguerditik aurrera



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

ateruneak luzea-
goak eta zaparra-
da ahulagoak,
arratsalde erditik
aurrera ateri gera-
tuz eta ostarte bat-
tzuk irekiz. Ten-
peratura maximo-
ak beste koska bat
behera: erdiko or-
duetan 12-14 gra-
duan joaz goia.

BIHAR

Giro lasaia eta epela berriz ere bueltan. Haizeak mende bal/hego-mendebaldetik joko du eta horrekin tenperatura maximoak nabarmen egingo du gora, eguneko erdiko orduetan 17-19 graduan joaz goia. Zeruan hodei batzuk ikusiko ditugu, batez ere, egunaren bigarren zatian baina hodei hauek ez dute inolako ondoriorik utziko eta giro lasaiaz gozatu ahalko da.

ETZI

Giroak kaxkartzera egingo du. Goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte, hego-mendebaldeko haizearekin giro lasaia eta nahiko epela izango dugu, hodeiak eta ostarteak tarketatuko direlarik, non tenperatura maximoek 17-19 gradu harrapatuko dituzten, baztertu gabe Tolosaldeko txokorik beroenetan 20 gradutara iristea. Arratsaldeko lehen ordutik aurrera ipar-mendebaldeko ukitua hartu, hodeiak ugaritu eta euritara joko du. Zaparrada ugarien arratsalde erditik aurrera eta iluntzean botako ditu. Haize aldatetarekin eta euriarekin egun amaieran nabarmen freskatuko du.

OSTIRALA
08



IGANDEA
10



LARUNBATA
09



ASTELEHENA
11



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburrak
argitaratzeko deitu
943 65 56 95
zenbakira, idatzi
ataria@ataria.eus
helbidera edo pasa
ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak
iragarkilaburrak.eus
webgunean

FARMAZIAK



MARTXOAK 8, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aramburu.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 0128.

MARTXOAK 9, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Lourdes Azpiroz Galarza.
Amarotz auzoa, 9.
Telefonoa: 943 67 5118.

MARTXOAK 10, IGANDEA IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 3274.

MARTXOAK 11, ASTELEHENA IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 3274

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • L. Azpiroz Galarza.
Amarotz auzoa, 9.
Tel.: 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza magazina. Aurreko egunetako edukien aukeraketa.

16:00. Zebrabidea.

20:00. Kantazgora musika saioa.

Tolosaldeko musikarien proposamenekin osaturiko saioa.

LARUNBATA

Goizean. Trikitia.

Arratsaldean. Euskal musika.

IGANDEA

Egun osoan. Euskal musika.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza magazina. Iker

Ibarluzearen eguraldi iragarpena, asteburuak utzitakoaren errepasoa, Iñaki Zubeldia *Kale Kantoitik*, bidaiariaren tarteak.

12:00. Entzuteko Jaioak musika saioa.

16:00. Zebrabidea.

18:00. Goizeko saioek utzitako onena.

107.6 fm
ataria.eus



R.ZABALA

SINCE MORE THAN 200 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA
20150 ADUNA. GIPUZKOA,
BASQUE COUNTRY, SPAIN

INFO@RZABALA.COM

PHONE NUMBER
0034 943 69 07 74

WWW.RZABALA.COM



**PROUDLY
MADE IN
EUROPE**

Nazioarteko emakumeon greba deialdiaren aurrean, ATARIA-ko lan taldeko emakumeok egun osoko greba egitea erabaki dugu.

HETEROPATRIARKATU
KAPITALISTARI *Planto!*

#M8 #EmakumeokPlanto

Ataria banaketaz arduratzen den enpresako, Etxerainoko, emakumeek ere greba deialdiarekin bat egingo dute.

Martxoaren 8an ez da ATARIA-rik banatuko Tolosan eta Alegian. Atarikideek egunean bertan astekaria jasotzeko aukera izango dute ATARIA-ko erredakzioan (San Esteban auzoa, 20. Tolosa).